

uk

234. zenbakia / 2013ko ekainaren 10a



URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urte osoan argazki zahar eta barriak
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
Urtean 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK
 zure etxean, hamabostero.
 Urtean 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA










Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

Renault garatzen du 

DRIVE THE CHANGE



BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bitor Egurrola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lekoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 BERMEO UDALA Euskara Zerbitzua
 Erandioko Udala	 Sestelako Udalak
 Urdulizko Udala	 Plentziako Udala
 TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	 Aldizkari honek Eusko Jauriaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du
 Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturari Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. San Nikolaseko frontoia barriro zabalik.
6. FACEGUK. Zer deritzozu LOMCEri?
7. LEHEN ETA ORAIN. Itze (Berango).
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Maria Elena Bilbao.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Lamiako Maskarada.
28. ARGAZKIA. Egurrezko zubia Gobela ibaian.
30. BERBETAN. Amaia Zubiria.
34. FOTOGRAFIA. San Nikolas ikastola.
40. SAKONEAN. San Nikolas ikastolaren 50. urteurrena.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Loreak Erepelean* filma.
43. MUSIKA. Txalaparta jaia Algortan.
44. LIBURUAK. *A Basque Literary History* liburua.
45. KIROLAK. Euskal Herriko futbol kopa.
46. MUNDUKATUAK. Deiene Garcia.
47. JENTILKOBA. Herensugeak.
49. PINTXOTAN. Bakailao brandada.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. "13 Calaveras" lagunartea Berangon, 1969-70.
54. AITORMENAK. Aitziber Juaristi, "Tzibi".

Azala: San Nikolas ikastola


www.ukaldizkaria.biz




30 Amaia Zubiria

Berbetan

Euskal ahotsik esanguratsuenetakoa duen Amaia Zubiriagaz (Zubieta, Gipuzkoa, 1947) egin dugu berbetan.



11 Maria Elena Bilbao



46 Deiene Garcia

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digitu)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

K.Olate

Astoa eta txerria

Txikitan maiz entzun izan nuen Osintxikiko Jazintoren astoarena: jatuna omen zen, oso, astoa, eta, gogor bezain luze jo zuen ne-gu batean, bazka-erreserbak ahituko zituen beldurrez, jaten ez ematea deliberatu omen zuen Jazintok, aberea baraualdia eramateko gauza izango ote zen probatzeko; egunak aurrera egin ahala –astoaren arrantza goz-kaitz eta apurka ahulagoak gorabehera– gero eta burgoiago zebilen Jazinto aberea jan gabe ere bizi zitekeenaren aurkikuntzarekin, harik eta halako batean asto gaixoak, azken intziri errukariarekin batera, azken hatsa ere bota zuen arte; ganbaran lastoarekin bai-na kortan astorik gabe geratu zen, orduan, ugazaba xuhurra.

Osintxikiko Jazintoren eskolakoak ziren, nonbait, Uztarri bertsolariak Bizkaiko txerriari jarritakoetan aipatzen dituen Pepetxo, Antolin, Ana eta Katalin ere: bi familiek “erdibana jateko” hazi zuten txerri bat; “nolabait” hazi –zehazten du bertsolariak–, ar-torik apenas ikusi gabe eta egunean bi aldiz asunak egosita gobernatu baitzuten belar-luze gaixoa; hura hiltzeko orduan ere berritzai-lea izan zen laukotea eta, ohiko aiztoa baz-tertuta, zekor-mazuaz buruan jota hil nahi izan zuen aberea; atarramentu onik gabe, ordea, lastoaren sutan erretzen jarri zu-tenean, txerria suspertu eta, “argala den me-dioz”, tximistaren gisa egin baitzien ihes, haren kurrinka soinuak betiko galdu ziren arte, bi familia tristeak urdai janez antojatze-ko arriskutik eta bulda erosteko obligaziotik libre utzita.

Ondo begiratzen badugu, agintariek jende xehearen bizibidea eskasteko darabil-ten keriak badu Osintxikiko ugazabaren eta bertotako bi familien jokabidearen antzik; ematen du, izan ere, Bruselako agintariek eta, sailean, haien beheragokoek, deliberatua dutela soldatak zein pensio eta prestazio publikoak dituztenak asun egosiz bazkatzea, eta gainontzekoak –jende xeheaz ari naiz,



beti ere– barau gorri kondentatzea: horretarako ezartzen ari dira, erreformaz erreforma, lan-eskubideen eta era guztietako babes sozialen murrizketak. Alferrik dituzte gehiegizko zorrotzasunaz adituek jo dituzten alarmak; alferrik, abereak hezur eta azal geratzen ari zaizkienaren ebidentzia: Bruselako eta haien sokako agintariek –jendearen arazoei hain itsu eta gor, nola erne eta adeitsu finantza botereen manuei– ez dute bere

teman amorerik emateko asmorik.

Gauzak horrela, politika ankerrok jasaten ditugunon hautua etsiaren eta kontraerasoaren artekoa delakoan nago: nagusiak noiz zentzatu zain geratu –flakiak zuloan sartzen gaitueneraino– ala behingoz “polainak jaso” eta hankaz gora bota ugazaba zikoitzak; Jazintoren asto ala Pepetxo, Antolin, Ana eta Katalinen txerri izan nahi dugun aukeratu behar dugu, azken batean. ○

gu geu

Bitartean bizi!

Ekain hasierako Eguzkiak irribarra margotu digu ezpainetan, eta a ze poza!

Agian, UK hau etxean jasotzerako lausatuko zaigu... baina bitartean, bizi!

Oporrak hartzeko gero eta gitxiago lotzen da, eta dagoeneko irrikitan gaudel! Halere, oraindino, apurtxo bat itxaron beharko dugu... baina, bitartean, bizi!


Maiatzaren 30eko grebagaz bat egin genuen, baina balizko oporrak non igaroko ditugun amets egiteari ezin utzi! Batzuk amets urrunak dira, eta besteak gertukoagoak, haiak ez hain ukigarriak eta hauek egingarriagoak...

Baina, ordura arte, bizi!

Eta hurrengora arte agurtu baino lehenago, irakurle:

Halamoduz baino, ahalik eta hoberen bizi!

UK-ko lan-taldea



Barrero gogor joz...! Zorionak pilotariak eta palisak! Algortako San Nikolas plazako pilotalekua barrero ere zabaldu dute urterian itxita egon ostean, Getxo Antzokiko eta plazako lanak direla-eta. Azkenean berreskuratu du bere itxura eta, bide batez, margotu eta harria garbitu dute. San Nikolaseko Pala txapelketarako zabaldu dute, Getxoko Pilota Eskolak eskatuta. Horrela, jolas-gune bat berreskuratu dute pilotazaleek auzoaren erdi-erdian. Plaza ere duela hilabete batzuk zabaldu zuten barrero, aparkalekua egiteko itxita egon ostean. Ingurunea erabat atontzeko Getxo Antzokia amaitzea besterik ez da falta. ○ / Argazkia: Hodei Torres

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer deritzozu LOMCEri, hezkuntza lege barriari?



Begoña Juanguarena

> etxeakoandrea

Oso txarto iruditzen zait lege barri hori. Atzerapen handia dakarrela uste dut. Gainera, atzerapen hau egindako murrizketei gehitu behar zaio. Hori gutxi balitz, izugarria da gaztelaniari lehentasuna emotea; hori benetan akats larria dela uste dut.



Sonia Taranilla

> langabea

Oso txarto iruditzen zait; badirudi, ia-ia Frankoren garaietan zegoen hezkuntza eredura itzuliko garela. Izan ere, urteetan hemen eraiki dena, sortu dena deuseztatu nahi dute; gurea dena kendu nahi digute.



Miriam Ruiz Gonzalez

> psikologoa

Nire ustez autonomia erkidegoek hartu beharko lituzkete horrelako erabakiak, hau da, autonomia erkidego bakoitzak aukeratu beharko luke bere ikasleek zer ikasiko duten. Uste dut estatu mailan horrelako erabakiak hartzeak ezinezona sor dezakeela gizartean.



Iñigo Criado

> langabea

Ezingo nuke iritzia emon, ez baitut oso ondo ezagutzen legea. Halere, entzun dudanagatik, orokorrean komentzen ari denagatik ez du ona emoten. Gainera, uste dut hezkuntza ez dagoela orain bakarrik txarto, urte ugari daromatza txarto. Hortaz, lege honek txartu egiten du.



Itziar Goiriena

> tabernaria

Uste dut hezkuntza oso txarto antolatuta dagoela; anabasa da. Gainera, nire aburuz, hezkuntza ez da hainbeste aldatu behar; etengabe aldatzen dihardute, eta egonkorragoa izan beharko litzateke. Berbarako, Finlandian gertatzen den bezala, lege beragaz urteak daramatzate.



Igor Etxebarria

> informatikaria

Nire ustez LOMCE legea atzerapen hutsa da. Ez dut ezagutzen zehatz-mehatz legeak dioena, baina uste dut inposizioz beterik dagoela. Eta gainera, beste garai batzuetara itzultzen gaituela uste dut, Frankoren garaietara hain zuzen.



Iraganez doa denbora* beti / ITZE (BERANGO)

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > semaforoa



Plentzia, 2013ko maiatza

Testua: **Maialen Markaida**
Argazkia: **David Crestelo "Kres"**

1

Beti iruditu zait gauza arraroa presaka gaudenetan zeinen den geldoa. Kolorea aldatuz, hotz edo beroa. Bihurtzen dabil geroz (e)ta modernoagoa, labur esanda hori da semaforoa.

2

Luzea da (e)ta ditu koloreak hiru, erdikoa ulertzen ondo ez dakigu. Gaur aurpegi ezberdin bat erakutsi digu. Azken egunetako eurian testigu, semaforoak ere kapela jantzi du.

3

Hau ikusita argazki kamera atara amaitzerako gorri ipini zait jada. Honek pentsarazi dit segundora hara: Makinak gizakitzen dabilzan gisara, gizakiok makina bihurtuko gara.

* Doinua: *Motibo bat nigana*

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

ez adiorik! > Joseba Kanpo Lasuen



Joseba Kanpo, aurten, 18. Korrikan

Lehenengotik 18.era; bitartean bizitako ametsaren alde zenbat kilometro, lan, ordu, besarkada... *Eskerrik asko, Joseba!* Julen Kaltzadak esan legez, Albaro Gurtearen Algortako etxean luze joandako bileran mamitu zuten Errazti, Gurtea, Joxepe Zuzazo, Natxo de Felipe, Bittor Artola E. Ibañe eta Kanpok 1980ko lehenengo Korrika. Bilbotarra jaiotzez, otxandiarra bihotzez eta Romoko bizilagun zen Kanpo. Ekonomia ikasketak zituen, publizitatean

jardun zuen, eta AEK-ko Uribe Kostako koordinatzaile eta gero Bizkaiko ekonomia arduradun izan zen. Musikazalea, saxo jolea, Txomin Barullo konpartsako fanfarrearen sortzaileetako eta gero Itzurbaltzetako Kaskarrian ibilitakoa. Aurten Korrikan, bidaialagun izan zuen Lourdes Artetxeren omenezko 2015. kilometroan, Romon, parte hartu zuen; eta Erraztigaz batera euskararen aldeko izerdiaren eskertzan lore-sorta eman zien AEK-k. ◯

bertso-saioa > Balkoitik balkoira

Bertsozaleak balkoira begira ipintzen dira gurean bagilean. ALBEkoek hilaren 21erako, barikua (22:00) jarri dute hitzordua. Antzokian, frontoian, jatetxean, gaztetxean, jatetxean, poteoan... zenbait oholztatan eta ohol-tza bakoak ere, mota askotako bertso-saioak daude. Horien artean gaur egun berezietakoa da Balkoitik Balkoira eskaintzen duen ikuskizuna. Bertsolaritza tradizioak dioenez, halako

bertso-saioak, bertsolariak balkoi banatan bata besteari deman, 1802 aldera egiten hasi ziren Tolosan; gerora galduz joan da modu hori, eta berreskuratze-lanetan, 1998tik (orduan San Nikolas plazan) ALBEk ere urtero antolatzen du ekitaldi mota hori, Portu Zaharreko Etxetxu plazan. Aurten, balkoi banatik modu librean jardungo duten bertsolariak Maialen Lujanbio eta Jon Maia izango dira. ◯



Lujanbiok eta Maiak jardungo dute balkoitik



2009ko azaroan zabaldu zuten kulturunea

itxita > Plaza Beltza

Maiatzaren 31n itxi zituen Larrabasterako Akilino Arriola kaleko atea Plaza Beltza Kulturunea. Ohar bidez adierazi legez, "hilabete honetan lokalez aldatu behar dugu. Hau da, gaur egun ezagutzen dugun Plaza Beltza Kulturunea betiko itxita geratuko da". Ostera, egoitza itxi behar izan badute ere, "Kolektiboak eta bertan lan egiten dugunok herriko ekimenetan parte hartzen segituko dugu. Gure helburua

beste lokal bat hartzea da; horretan gabil-tza. Horretarako, zuen guztion laguntza eskertuko dugu. Datozen asteetan egin beharreko lana oso handia izango da eta proiektu honetan sinesten duzuenon inplikazioa garrantzitsua izango da proiektuaren beraren etorkizunerako". Antza, ezohiko ordutegian, baina hainbat jarduerak oraingoz han segituko dute: kontsumo-taldeak, ogia, zenbait bilera e.a. ◯

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaia...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Zabaldu euskararen atea



Getxo
bizitza ez da



9E+T
gure munduarekin batera



Hauxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduaren errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50 gehienez 360 euro, euskara hutsez jartzen baduzu. **%30** gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehentasuna badu.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zure errotulua, lehenengo seietan, gainera, deskontu gehigarria egingo dizuete:

%10 eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu. **%5** ekoa euskaraz eta gatzelaniaz jartzen baduzu.

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52
gehi@getxo.net

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

Euskal Herria 23. 94 491 54 32

RÓTULOS PUBLIARTE

Bidebarri 19. 635 752 373

CIANOPLAN

Pientzia hirian kalea 6- Calle Villa de Pientzia 6. 94 464 85 72

ULI ARTE PERSIANAS Y TOLDOS

Andres Cortina 14. 94 403 55 90

LA REPRO

Euskal Herria 10. 94 491 13 95

KALKO

Aingeruaren etorb. 4 B - Av. del Ángel 4 B. 94 491 29 83

KISER

Kale Nagusia 16- Mayor 16. 94 464 73 37

AMETS

Telletxe 13. 94 460 10 31

RÓTULOS ARRILUCE

Arriluze kaia 2/g- Muelle de Arriluze s/n. 94 491 09 83

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net/euskara

DESKONTU GEHIGARRIA

[erretratu]



“Lau bikoteak batera ezkondu ginen nire senarraren amari, Doña Petrari, lana aurrezteko”

M. Elena Bilbao > Berangoko ezkontza laukoitzak, 50 urte

Emakume berangoztar batzuen oroitzenetan oinarrituta, herri-antzezlanaren prestatu zuen iaz Berangoko Dordoka taldeak. Euren helburua, urtetan ezkutuan egon diren istorioak taularatzea zen, eta harribitxi ugari topatu zituzten, besteak beste, Maria Elena Bilbao Bilbaoren bizipenak. Loian jaioa, urte ugari daroaz herrian, baina aldeztu aurretik ere Berango ondo ezagutzen zuen: “Gure Txoko mendi-taldera etortzen nintzen, bertako gizon bat gustuko nuelako”. Eta azkenean, gustuko zuen gizon horregaz, Jose Javier Olaguegaz, hain zuzen ere, ezkondu zen, orain 50 urte. Baina euren ezkondu izan: bere senarraren beste hiru neba-arrebagaz batera ezkondu zen. Hau da, ezkontza laukoitza egin zuten: “Bere amari, Doña Petrari, lana aurrezteko egin genuen”. Gainera, apaiza Txuma Olague izan zen, senarraren beste anaia bat: “Bere lehenengo ezkontza izan zen. Ekitaldiak hautsak harrotu zituen herrian; garai hartako 250 gonbidatu etorri ziren, eta ezkontza Berangoko elizaren kanpoko aterpean egin behar izan genuen espazio faltagatik”. Ezkontza amaitu, eta eztei-bidaian ostean, danak alkartu ziren ostabere: “Iruñeko sanferminetara joan ginen, kristorena izan zen!”. Hau gutxi balitz, Karabigane auzoko azken aldatzean, sei pisuz osatutako etxebizitza-blokea eraiki zuen familiak, Doña Petra eta bost seme-alabentzat. Etxearen izena, noski, Olaguetxea! Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Hodei Torres**

Udala on-line dago!


Udal-webgunearen bitartez **111 izapide** egin daitezke (udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuarenak); beharrezkoak dira **Izenpe txartel elektronikoa** eta **NAN digitala**

Getxo on-line dago, izan ere, ehun izapidetik gora egin daitezke udalaren webgunearen bitartez, bai bereak, bai Aldundikoak, bai Eusko Jaurlaritzakoak, bai Espainiako Gobernuak. Beharrezko txartela zelan egin ere azaltzen da webgunean.

Udalak, bere webgunearen bitartez, herritarrei 111 izapide egitea ahalbidetzen die, horretarako beharrezkoak direla Izenpe txartel elektronikoa eta NAN digitala. Webgunean bertan eskuragarri dago horiek erabiltzeko beharrezko informazioa eta baldintza teknikoak; Izenpe txartela eskuratzeko jarraitu beharrezko urratsak ere azaltzen dira. Txartel elektronikoz eragiketarako egiten dira Administrazio Elektronikoren bulegoaren bitartez, tartean Udalaren menpe daudenak. Baina, horietaz gainera, beste administrazio publikoetako hainbat izapide ere gauzatuko dira: Bizkaiko Aldundia, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuarenak.

Getxoko Udalarri dagokionez, zergak zein isunak kontsulta eta ordain daitezke; erroldatze-agiria atera daiteke baita ondokoak ere: abisuak, kexak eta iradokizunak, dekretuak, Correos-eko jakinarazpen ziurtatuak, obra txikiko lizentziak, Erregistro Orokorra, familia elkartzeko eskaera, Udaltzaingoen atestatuak, Udaltzaingoen abisuak, urruntze-aginduak eta galdutako objektuak.

Eta gehiago, besteak beste: Erregistro Orokorreko eskaerak egin daitezke eta isunak alegatu; abisuak eta kexak iragarkien



Getxoko Udalaren webgunea

taulan argitaratu; espazio publikoetan jaiak ospatzeko eta ikuskizun kultural, ludiko eta kirol-ikuskizunak egiteko eskaerak egin; eskaerak kontsulta daitezke, frogagiria atera, eskaera zein egoeratan den kontsultatu, edo OHZren likidazioaren

“Getxo Kirolak elkarteko instalazioak ere erreserba daitezke internet bidez”

eta Bizkaiko Katastroko datuak kontsultatu; norbere ibilgailuen gaineko xehetasunak kontsultatu eta zergak ordaindu.

Bestalde, Getxo Kirolak elkartearen instalazioak erreserba daitezke, baita horiek kontsultatu, harremanetarako datuak eguneratu baita bertan behera utzi ere.

Baina, aurreratu bezala, beste erakundeetako hainbat izapide ere egin daiteke, hala nola: gida-baimenaren puntuak, langile-bizitza, Katastroko datuak, zerga-datuak eta Bizkaiko Katastroko atzipena kontsultatu. Osakidetza izapideen artean, barriz: sendagilearentzako txanda erreserbatu, sendagile-aldaketa eskatu, bigarren kontsulta medikoa egin, asistentzia-espeditenteak edota bajako datuak kontsultatu. Eusko Jaurlaritzaren izapide orokorrak ere egin daitezke: kontratazio-erriak, enpresen erregistroa eta sailkapena, taldeentzako zerbitzuak, e.a. Foru Zerbitzuei dagokienez, PFEZ bidera daiteke, autolikidazioak kontsultatu, aitoren telematikoak, datu fiskalak, iradokizunak, zorrak eta fakturak. ○

Info+: www.getxo.net

Gaztetxetik kalera!

Plaza berreskuratuko du Txorimalok hilaren 15ean



Info+: txorimalogaztetxea.blogspot.com

Ekainaren 15ean Andra Mariko eraikitik aterako dira Txorimalo gaztetxeko kideak eta Algortako erdigunera hurbilduko dira egun osoz, Plaza Berreskuratuko ekimenaren bitartez. Egun osoz egitaraua prestatu dute San Nikolas plazan eta ekitaldien artean dago Algortako I. Lagunarteko Triatloi “oso herrikoia”.

Goizko 09:30ean ipini dute probarako hitzordua Ereagan, La Ola jatetxe alboan. Lasterketa, ordea, Portu Zaharretik abiatuko da: parte-hartzaileak Ereaga hondartzaraino, 250 metro uger eginda. Jarraian bizikleta hartu eta 14 kilometro egingo dituzte Azkorri eta Galeatik pasatuz; San Nikolas plazan utziko dute bizikleta eta korrika egingo dituzte azken kilometro biak, toki horretan bertan amaituz triatloia. Proban parte hartzekotan

idatzi mezua ondoko helbide elektronikora: sastrakagaztetxea@hotmail.com.

Eta kirol apur bat egin ostean, azokari hasiera emongo diote gazteek, 11:00-etan. Umeentzako tailerrak ere egongo dira 11:30etik aurrera, eta 13:00etan iturri-txapelketa. Herri-bazkari “autogestio-natua”, barriz, 15:00 aldera hasiko da.

Arrastian jarraituko du programak: 3x3 futbito txapelketa 17:00etan hasiko da eta horren ostean kontzertuak izango dira, 20:00 aldera. Baina ez uste hala bukatuko denik eguna, izan ere, 22:00etatik aurrera poteo musikatuak izango da Algortako tabernetan. Gainera, egun osoan zabalik egongo da “kantina” eta mural bat ere egingo dute. Sorpresa gehiago ere egongo dela aurreratu dute gaztetxeko lagunek. ○

LANBIDE AIBOAKO INSTITUTURA

Lanbide Aiboako institutu zaharrea kokatuko da aldi baterako (Makaletako etorbidea, 56), Areetako bulegoa barritu bitartean. “Erabiltzaileei, gehienbat Getxokoei baina baita eskualdekoei ere, eskaintzen dien zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzea” da lanen asmoa.

HEZKUNTZA ARLOKO LANGUNTZETARAKO DEIA

Hezkuntza arloko diru-laguntzak eskatzeko epea ekainaren 17an amaituko da. Horiek eska ditzakete Getxoko ikastetxe publikoek eta nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik bako erakundeek, zertarako eta udalerriko biztanleentzako heziketa-jarduerak garatzen dituzten programak gauzatu edo sustatzeko. Eskaerak aurkez daitezke Herritarrek Artatzeko Bulegoetan.

OHZ ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

OHZ ordaintzeko diru-laguntza deialdia abiatu du Udalak eta 50 egun inguru dago eskaera egiteko; 250.000 euro gorde ditu Udalak horretarako eta deialdia zuzenduta dago 23.000 eurotik beherako balio katastrala duten lehen etxebizitzetara; familia-unitateko urteko diru sarrerak 22.500 euro edo 30.114 euro baino gutxiago izan behar dute (azken hori familia-kide kopuruaren arabera). Informazio gehiago: 944 660 280.

BANDERA URDINA GURE HONDARTZETAN

Arrigunaga, Azkorri-Gorrondatxe eta Ereaga hondartzak bandera urdina izango dute uda honetan ere, Ingurugiroko Hezkuntzako eta Kontsumitzaileen Elkartek emonda. Estandar batzuk bete izana egiaztatzen du banderak, hala nola: uraren kalitate ona, ingurugiro-hezkuntza, garbitasuna, informazioa, segurtasuna, zerbitzuak eta instalazioak. Orain eguzkia besterik ez dugu falta!



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Ramiro Muñoz eta Norma Brotonel > Getxoko Etorkinak plataformakoak

“Etorkina bertara moldatu, eta bertakoek kultura-aniztasuna onartu behar dute”



Muñoz eta Brotonel, plataformako kideak

“Kultur artekotasuna krisi garaian, posible da?” galdera hori erantzuten saiatu ziren Getxoko Etorkinak plataformaren tailerlean, abenduan. Ondorioak, barriz, maiatzean aurkeztu barri dituzte eta, beraz, plataformako kideengana jo dugu horien barri izateko asmoz. Plataforma osatzen dute 12 elkartek eta, Getxokoez gainera, inguruko herrietakoak, Bizkaikoak edota Euskal Herrikoak ere badaude horien artean. Guztien izenean hitz egin eta aurkeztu dizkigute tailerraren ondorioak Ramiro Muñozek eta Norma Brotonelek.

—Urtero egin duzue tailerra eta galdera desberdinak planteatzen dituzue, baina zelakoa da metodologia?

—Metodologia parte-hartzailea da, danok izan dezagun aukera gure pentsamenduak adierazteko. Laborategi soziala dela esan genezake, naziotasun desberdinetako pertsonak elkartzen gara-eta.

—Azken galdera izan da kultur artekotasunari buruzkoa: posible da krisi garaian? Zer erantzun duzue?

—Kultur artekotasunari buruz hitz egitea konplexua da, denbora asko behar da gai-

ri buruz hitz egin eta horretan sakontzeko. Plataformatik gure ekarpena egin gura dugu, jendea sentibilizatzen joan dadin, bai atzerritarrek, bai bertakoak; eta jendarte honetan elkarregaz bizi ahal izateko, egoera bardinean. Beraz, posible da kultur artekotasuna? Guk baietz uste dugu, baina gaur egun oso zaila da, krisia dela-eta. Adibidez, aurretiko estereotipoak larriagotu dira bere eraginez eta, orokorrean, errua botatzen zaio pertsona immigranteari; baina danok dakigu ez dela egia. Lana lapurtzera gatzelako ustea dago, baina ez

da horrela. Jendeak egin gura ez dituen lanak egiten ditugu; etorri gara lan egitera, ez lana lapurtzera. Etorri gara ere bizitza bertokoakaz partekatzen.

—Integrazioa eta elkarbizitza da gakoa?

—Bai, hain zuzen ere, horregatik dira interesgarriak tailerrok, jendea sentibilizatzen. Jakin badakigu kanpokook hemengo jendartera moldatu behar dugula, zentzu askotan. Kultura desberdinekoak gara

«Estereotipoak larriagotu dira krisia dela-eta, errua etorkinari botatzen zaiola»

eta guretzako normala dena hemen bekatua izan daiteke. Aldaketa soziala zentzu bikoa izan behar du, etorkina bertara moldatuz eta bertakoak kultura-aniztasuna onartuz; azken batean, immigrazioa beti egongo da, ez da desagertuko. Kontuan izan behar da bertako askok ere migratu behar izaten dute.

—Tailerrez gain, zein da zuen egitekoa?

—Pertsona etorkina laguntzea eta informatzea. Lerro horretan lan egiten dugu, horixe da gure helburua. Esperientziak partekatzea eta jendeari laguntzea ahalik eta alderdi gehienetan. Erakundeekiko harremana garrantzitsua da, zabaltzen jarraitzeko, eta ahalik eta gehien zabaltzeko gure jarduera eremua, beti ere aipatu lerro bardinean, gero eta pertsona gehien sentibilizatu ahal izateko. Zentzu horretan, Getxon abiatu den ekimen bat aipatu nuke: zurrumurruek aurkako jarduera, estereotipoakaz lotuta dagoena. Estereotipoak aintzat hartuta oso erraza da zurrumurruek sortzea eta zabaltzea pertsona etorkinen aurka, oinarriarik bakoak izan arren. Zurrumurruek amaitzea garrantzitsua da gure egitekoari laguntzeko. ○

Info+: plataformagetxo@hotmail.com

Udan antzezten ikasiz Utopian Getxoko antzerki-eskolak udaleku sortzaileak antolatatu ditu



Info+: www.utopiangetxo.com eta 944 303 194

Antzerki-eskolaren egoitza barrian garatuko dituzte udaleku sortzaileak uztailen 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat, Errotatxu bideko 6.ean. Bertan landuko dituzte antzerkia, dantza, arte plastikoak eta perkusioa, eta asmoa da umeen sormena sustatzea, irudimenaz goza dezaten: “*Helburua da umeek sentitzen dutena adierazten ikastea arte-diziplina horien bitartez, baita taldean lan egiten ikastea ere, elkar errespetatuz*”.

Talde bitan garatuko dituzte udalekuak, bata uztailaren 1etik 12ra izango da, bestea 1etik 19ra, eta biak goizeko 09:30etik 14:00etara; bigarrean in-

gelese ere landuko dituzte edukiak. Gainera, egunez egun egituratu dituzte edukiok, egun bakoitzean diziplina jakinak landuz.

Antzerki-eskolako lagunek gogorarazi dute Utopian sormenerako gunea dela eta komunitatearen beharrak asetzeko asmoa daukala: “*Getxoko herritarrek adierazteko aukera izan dezaten eta antzerkiaren bitartez esperimendatzeko aukera izan dezaten*”. Horregatik abiatu dute abentura hau antzerkiaren bitartez: “*dantzatzen eta bere soinuk joko ditugu, eta horretarako gure eskuak eraikeko dugu horiek amesteko behar duguna*”. ○

GETXOKO DANTZA ETA ABESBATZEN EGUNAK

Getxotar Dantza Eguna ospatuko da ekainaren 21etik 23ra Algortako Biotz Alai plazan, beste behin ere. Bertan ikusi ahalko da herriko dantzarien ikasturteko lanaren emaitza. Gainera, egun horietan VI. getxotar Abesbatzen Eguna izango da, ekainaren 23an: kontzertua 18:00etan hasiko da, hori ere Biotz Alai plazan. Sarrera doakoa izango da.

Info+: www.getxo.net

BIGARREN ESKUKO LIBURU-AZOKA

Algortako kultur etxean izango da aurten Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa, Villamonten. Ekainaren 20an hasi eta 23ra arte euro baten truke erosi ahaliko dira liburuak: udal-liburutegiari dohaintzan emondako bigarren eskuko liburuak dira, eta bildutako dirua GKE batek bultzatutako egitasmo solidario bati emongo diote, urtero legez: aurten San Martin de Tours-eko Misio Taldeari, Kongoko Kansenian garatutako eskolaratze proiektuarentzat. Azoka zabalduko dute 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Info+: Mendibile kalea, 3

EMAKUMEAK ESZENAN ZIKLOA MUSIKA-ESKOLAN

Emakumeak Eszenan zikloaren baitan antzezlan bi eskainiko dute asteotan Areetako Andres Isasi musika-eskolan: ekainaren 15ean, Aztiak taldeak *Es una niña* taularatuko du eta, hilaren 29an, Luna Ilena taldeak *A trompicones*. Biak hasiko dira 19:00etan eta sarrera 3 eurokoa da.

IKASTURTEKO AZKEN LITERATUR SOLASALDIA

Ekainaren 20an izango da ikasturte honetako azken Literatur solasaldia Villamonteko liburutegian, 19:45ean, Juan Carlos Marquenzen *Norteamerica profunda* liburuaz. Kultur etxeko sortze-idazketa tailerrak antolatzen ditu solasaldiok eta sarrera doan da.

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Leioa Biziberritzen taldea > Ongi Etorri topalekua zabaldu dute

“Ongi Etorri gunea euskaltzaleon topaleku izatea nahi dugu, euskal kultura bultzatzeko”

Herriko euskaltzaleak zorioneko daude, elkarte barria zabaldu dute-eta: Ongi Etorri Herri Topalekua. Leioa Biziberritzen taldearen proiektua da eta kultur ekimenak egingo dituzte bertan, baina eragile eta norbanakoek topaleku ere izango da.

—Leioa biziberritzeko asmoz elkartu zarete, zergatik?

—Eragile eta biztanle askoren betiko kezka da Leioak daukan “lotarako herri” izatera. Herriak 30.000 biztanle izan arren herri-bizitza oso eskasa da: jendeak bertan egiten du lo baina ez da hemengo sentitzen, salbuespenak salbuespen. Herri-izatera duten ezaugarriak desagertzen joan dira: hizkuntza, ingurunea, kultura, gune erreferentzialak, e.a. Ondorioz, nahitaezko hariak falta zaizkio herriari esanahia eta bizia ematen dioten jendarte-ehunak josteko eta sendotzeko. Guk hari horiek berreskuratu, euskaraz eta Euskal Herriaz busti eta biziz berritu nahi ditugu.

—**Horretarako elkarte edo gune bat zabaldu barri duzue: Ongi Etorri.**

—Belaunaldi ezberdinetako leioaztar euskaltzaleon topalekua izatea nahi dugu, Leioako eta Euskal Herriko Kultura bultzatzeko eta bizitzeko erreferentziatzeko gu-



Ongi Etorri Iparragirre kaleko 7.ean dago, Ikea Mendi auzoan

ne. Proiektuaren ildo nagusiak dira: euskal kultura eta herri-sentimendua indartzeko ekimenak garatzea, gunean bertan eta batez ere herrian; Leioako memoria berreskuratzea eta zabaltzea, haur eta gazteei euskarazko aisialdia eskaintzea eta eragile sozialentzako baliabide-biltegia izatea. Lokala abiapuntua da, baina herriko txoko eta une ezberdinetan gure ekarpena egin nahi dugu, herri-ehunak berreskuratu, biziz berritu eta josteko.

—**Bertan zer egingo duzue eta nork parte har dezake?**

—Ostiralero zabalduko dugu topaleku eta taberna moduan, eta kultur ekintzak antolatuko ditugu: hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak, e.a. Ekimenaren oinarriekin bat egiten duten eragile eta norbanakoek aukera daukate lokalean ekimenak antolatu, bilerak egin eta baliabideak partekatzeko. Gainera, bazkideek jantokia eta sukaldea erabil dezakete. ○

Sua piztera doa!

Jon Deunaren jaiak izango dira ekainaren 20tik 24ra eta badago zertan parte hartu



Txupina udaletxetik jaurti ostean koadrilen jaitsiera izango da, ekainaren 20an

Badirudi uda iritsi dela azkenean eta, zer hobe ospatzeko, herriko jaiak baino! Jon Deunaren jaiak ekainaren 20tik 24ra izango dira eta giroa berotzen hasiko dira aurreko zapatuan, Antzineko Egunagaz.

Egun horretan izango da koadrilen arteko lehiaketa gastronomikoa, baita tabernetako pintxo lehiaketa ere, aste akabu osoan. Gainera, Gazte Sua jaiak izango da barikua 14an Kandelazubieta kiroldegian, herriko musika taldeakaz.

Baina goazen jaietara. Aurten sanjuenen barruan egingo dute Pop-rock Lehiaketaren finala: barikua 21ean, 22:00etan, Kandelazubieta kiroldegian. Jaietako egitarau orokorraren barruan aurrera dezakegun ekitaldi bakarra da,

programa osoa itxekotan dagoela.

Halere, lortu dugu Txosnetako egitaraua eta badago zertan parte hartu. Txupina eguna 20an jaurtiko dute Txosnek, 21:00etan, eta jarraian izango dira sardina-jana eta erromeria, Gora Herria taldeagaz. Barikuan, 23:30ean hasiko da kontzertua, Vendetta taldeagaz; eta goizeko 03:30ak aldera, kulero eta galtzontzilo lasterketa izango da. Zapatuan, Trikizio taldeak girotuko du gaua eta, domekan, Akelarrea egingo dute gaueko 12:00etan, Garilak 26 taldearen laguntzagaz. Astelehenean amaituko dira jaiak, Jon Deunaren Egunean: 18:00etan Kuko, Truko eta Bolenwider pailazoen ikuskizuna izango da, baita txokolate-jana ere. ○

‘IGELAK’ ERAKUSKETARA AUTOREAREN ESKUTIK

Kultur Leioako *urraela* gustuko eta bertan egongo dira Corrado Masacciren ‘Igelak’ ekainaren 30era arte. Bisitari kopurua ikusita, bisita gidatu gehiago antolatu dute autoreagaz datozen zapatuetan, ekainaren 15, 22 eta 29an. Bisitak 17:30 eta 19:30ak bitartean izango dira eta, bertan, txotxongilo egileak bere sorkuntza prozesua azalduko du, baita bisitarien galderei erantzun ere. Edonorentzat dira bisitok, irekiak, eta taldeka edo banaka egin daitezke. Gainera, ez da nahitaezkoa aurretik hitzordua eskatzea, Masacci erakusketa-aretoan egongo delako aipatu egun eta ordutegian.

Behargintza: Mendibile kalea, 3

JOTA TXAPELKETA EKAINAREN 16AN

Leioako Jota Txapelketa ekainaren 16an jokatuko da, domekan, Jon Deunaren jaien aurreko aste akabuan. Azken urteotan ez bezala, aurten Kandelazubieta kiroldegian izango da lehia, eguerdiko 12:00etan. Iazko irabazleek, Haizea Hormaetxea leioaztarrak eta Lander Campos santurtziarrak, zapia eta txapela defendatu beharko dituzte inguruko dantzari bikote onenen aurrean. Zorte on danori eta ondo dantzatu!

Info+: www.leioa.net

UDAL EUSKALTEGIAN UDAKO IKASTAROAK

Leioako Mastitxu Udal Euskaltegia izena emon daiteke udako ikastaro trinkoetan parte hartzeko, hain zuzen ere, ekainaren 28ra arte egin daiteke. Irailean ere emongo dituzte ikastaro trinkoak eta horietan, barriz, ekainaren 17tik uztailaren 5era bitartean emon behar da izena. Euskara maila danetarako ikastaroak eskainiko dituzte, baita HABEren azterketak prestatzeko ikastaroak ere. Informazio gehiagorako deitu 94 464 00 02 telefonora edo idatzi mezua euskaltegi@leioa.net helbide elektronikora.

Info+: www.euskaltegieleioa.com

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34



**Kalitatea eta moda
prezio paregabeetan**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

[erandio]

Isabel Ramos Pila > Al Alba eko-dendakoa

“Oinarrizko beharrak ase dituen umetxoa askoz independenteago da gerora”

Produktu ekologiko eta biologikoen denda dauka Isabel Ramos Pilak Alzagan, baina tailerrak ere emoten ditu umetxoen besoetako faseari buruz. Hain zuzen ere, umetxoak eroateko zorroari eta oihalezko pixoihalei buruz jardungo da ekainaren 22an postetxe zaharrean.

—Nahiko zabaltzen ari dira umetxoak eroateko zorroak, moda kontua dira?

—Ez dira moda kontua: lehen hilabetetan umeek besoetan joateko beharra daukate, adituek kanpoko ernaldia esaten dioten fase horretan. Ez da gauza barria, kultura danetan eroan dira umetxoak besoetan: lehen ume-kotxeak XVIII. mendekoak dira. Baina horrek ez du esan gura umeak eroateko gailu danek modu egokian eroaten dutenik umea: danetarik dago eta batzuetan umeak ez doaz jarraera egokian. Baina horren gainetik, tailean jardungo naiz umeak besoetan eroatearen onurei buruz, baita besoetan ez eroateak ekar ditzakeen kalteei buruz ere. —Zeintzuk dira onura eta kalte horiek? —Garrantzitsua da ama edo garraiolariagaz kontaktua, umea babestua sentitzen da-eta: guztiz osatu barik jaiotzen gara eta, batez ere, lehen hiru hilabeteetan



Info+: alalbaekotienda.blogspot.com.es

tan kanguruen antzekoak gara, garapena besoetan amaitzeko beharra daukagu. Batzuek diote umea menpekoago egiten dela, baina ikerketek kontrakoa diote: oinarrizko beharrak ase dituen umetxoa askoz independenteago da gerora. Bestalde, kotxean doan umea ez dago nahikoa estimulatuta; besoetan, barriz, jendeari begietara begiratzen dio, mugimenduagaz kontziente da. Beste kalte bat da burua deformatu ahal dela beti etzanda joatearen ondorioz, kalte esteti-

koa bakarrik izan arren. Horieta gain beste arrazoi asko ere badago.

—Eta oihalezko pixoihalak?

—Uste da lan gehiago emoten dutela, baina orain ez da gure gurasoen garaian bezala, garbigailurik ez eta pixoihalak irakin behar zirenean. Behin ikasita, oso erraz erabiltzen dira. Inbertsio ekonomiko hasieran handia da, baina luzera merkeago ateratzen da. Eta umeentzako onurak? Produktu kimikoek ez dutela ukitzen beren azala. ○

Enfokatu eta... klik!

Erandioko **IV. Argazki Jardunaldiak** abian: **argazki-maratoia** izango da **ekainaren 23an**



Info+: rctdx@hotmail.com eta 615 764 891

Laugarrenez antolatu ditu argazkilaritzari buruzko jardunaldiak Radio Club Takolos elkarteak eta daborduko martxan daude. Hil akabura arte makina bat ekimen egongo da Astrabuduan, kultur etxean eta hainbat tabernatan.

Ekainaren 14an, hasteko, argazki-proiektzioa izango da Trabudu plazan, 21:00etan. Gainera, hainbat egunetan estudioko erretratuak egingo dituzte: “*unetxo batez modelo gisa aritu gura dutenei*” fotoaldizkaria oparituko diete. Lehena izango da hilaren 18an, kultur etxeko gela urdinean eta 18:30ean; bigarrena ekainaren 28an, New Tavern-en eta

20:00etan; eta hirugarrena 29an, Boss tabernan eta 20:00etan. Hilaren 21ean, barriz, tailer praktikoa eskainiko dute: gaueko argazkiak. Madaripen ipini dute hitzordua 21:00etan. Eta biharamunean *photocall* egingo dute Athletic Egunean.

Baina ekimen garrantzitsua hilaren 23an izango da, argazki-maratoia. Josu Murueta plazan jaso behar dira akreditazioak 10:00etatik 11:30era. Ondoren bazkideen argazkiak erakutsiko dituzte, bazkaria izango da eta, arrastian, itsasontzian urteera itsasadarrean barrena. Azkenik, *Erandio, lehen eta gero* erakusketa ipiniko dute kultur etxean ekainaren 24tik 28ra. ○

DENBORAREN KORAPILOAK AZOKAN

Euskarazko bakarriketa batez gozatu ahal da ekainaren 18an, Alzagako azoka zaharrean: *Denboraren korapiloak*. Hain zuzen, Stanislaw Lem-en idazlan baten egokitzapena dakarkigu Tartean Teatroa taldeak, eta Mikel Martinezek antzetzuko du. Obra 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da.

PIRAGUA-MAILEGU ZERBITZUA HASI DA

Itsasadarrean barna ibiltzeko gogo daukazu? Bada, hasi da piragua-mailegu zerbitzua eta irailera arte txangoak egin ahalko dituzu, zapatu eta domekatan, goizeko 10:00 eta 14:00 bitartean, Atzagako ontzirekutek abiatuta. Zerbitzua eskaintzen du RK Abenturak eta Erandion erroldatuta daudenentzako doakoa izango da. Eguraldiak lagunduko ahal du!

Info+: 665 702 282

MUSIKA ESKOLAKO ENTZUNALDIAK

Musika-eskolako ikasturteko uzta dasta daiteke egunotan Astrabuduko kultur etxean, izan ere, ikasleak entzunaldiak eskaintzen ari dira hil osoan. Oraindino garaiz zabilta horietako hiru entzuteko: ekainaren 12an, haize-entzunaldia, 19:00etan; hilaren 14an, piano-entzunaldia, 19:00etan; eta ekainaren 26an, konbo-entzunaldia, 19:30ean.

UDAKO PROGRAMETAN IZENA EMAN DAITEKE

Umeak eta gazteak, zorionekoak! Udalak hainbat programa antolatu ditu uztaileko eta izen-emotea zabalik dago. Programak dira Muak tailer artistikoa, Antzerkitxiki, Udaldia eta Gazte-udaldia. Egitarauen eta izen-emotearen informazio osotua daukazu Kultur sailean, baita Udalaren kultur agendan ere, bere webgunean.

Info+: www.erandio.net

LUBERRI
Basolanak SL
Lorezaritza

Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta erreite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 cm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90€

BEZ BARNE

cianoplan
global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

WEB-ORRI BARRIA SOPELOZTARRENTZAT

Soul Bilbao SL enpresak egin duen gune barri honek hainbat sailen informazioa eskaintzen du: agenda, deskargatzeko dokumentuak, udal-jardueren informazio orokorra e.a. Web-orri honetaz gain, urtarrean, Udalak martxan jarri zuen parte hartzea sustatzeko beste web-orrialde bat, eta datozen asteotan, oster, turismoarentzat beren-beregi bideratutako web-orrialdea abiatuko du udalak. Udal-sailei dagokienez, egitura bera mantenduko da: sailaren informazioa, albisteak, agendaren estekak eta deskargatzeko dokumentuak. Agendan, barriz, herrian antolatu diren hitzorduak agertuko dira. Horrez gainera, sistemak albisteak postaz, facebook zein twitter-era bidaltzeko aukera egongo da. Oraingoan, web-orri barriaren helbidea www.sopelana.net izango da, udalerraren izen ofiziala aldatu arte.

Info+: www.sopelana.net

BURDIN-HESIA EZAGUTZEKO BISITAK

Ekainaren 8an eta 22an Munarrikolandako Burdin-hesiko aztarnak ezagutzeko aukera izango duzu. Izan ere, Sopelako turismo-bulegoak bisita gidatuak antolatu ditu egun horietan. Egun horietaz gain, uztailearen 13an baita 28an ere, Munarrikolandatik ibilbideak egingo dira, 10:00etatik aurrera, hiru euroren truke.

EKAINAK 23, SAN JUAN GAUA

San Juan bezperako gauan, Larrabasterran udako solstizioz gozatzeko aukera izango dute sopeloztarrek. Horrela, Urkon, 21:00etan txokolate-jana egongo da; 22:00etan, barriz, kale-antzerkia ikusgai izango da bertan, eta ondoren, sua piztuko dute. Prest zaude urteko gaurik laburren gozatzeko?

Sopela: “harribitxia”

Gaindegiak egindako azterketak 20 udalerrri “harribitxi” izendatu ditu, horien artean Sopela



Bizkaian, Sopela ez ezik, Mungia eta Larrabetzu ere “harribitxi” izendatu dituzte

Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, egin duen azterketaren emaitzak kaleratu barri ditu. Ikerketa horretan Euskal Herriko udalerrien bizitasun ekonomiko eta soziala neurtu dute. Azterketa egiteko, hainbat dira neurtutako adierazleak: oreka demografikoa, bizi-baldintzak, lana eta jarduera ekonomikoa, baita zerbitzuetarako irisgarritasuna ere. Neurketa egiteko erabilitako hainbat aldagai, besteak beste, honakoak izan dira; demografia alorrean, barbarako, zahartzte, jaiotze tasa edo gazte zein ema-

kumeen iraute-tasa neurtu dute; bizi baldintzen atalean, jarduera-tasa eta lan-gabezia. Lana eta jarduera ekonomikoa, barriz, biztanleria aktiboaren egitura, edota enplegua sortzeko balizko maila neurtu da.

Hala, esan bezala, aldagai horietan puntuaziorik onena duten 20 “harribitxi” artean Sopela dago. Oro har, ikerketa egiteko 40 lagin hartu dira Euskal Herri osoan, eta herrialdeka, hauek izan dira udalerrri kopuruak; 7 Nafarroa Garaikoak, 6 Gipuzkoakoak, 4 Lapurdikoak, eta azkenik, 3 Bizkaikoak dira. ○

Aitxu! euskara-taldea > kantari goaz!

“Aitzakia da; herriko eragileek euskaragaz daukaten atxikimendua berrets dezaten”



Aurreko edizioetan 300 pertsona inguru batu izan dira kantaldian

Sei urte igaro dira Aitxu! euskara-taldea Sopelako herritarrak kantatzen jarri zituenetik; eta ordutik, urtez urte abestiak giro ederra sortzen dute kaleko bazterrak alaituz; betiere, euskararen aldeko musika-notak lau haizetara zabaltzeko. Horren barri izateko Mikel Begoñagaz, Aitxuko kideagaz lotu gara. —“Euskarak batzen gaitu” lelopean ospatuko duzue VI. edizioa...

—Guretzako kantaldia ekimen sinbolikoa da; horren bidez lortzen dugu herriko eragileek euskaragaz bat egitea, hizkuntzarekiko euren lotura adieraztea. Aitzakia da, herria batzen dugu, eta herriaren aurrean, Sopelako oso bestelako taldeek euskaraz abesten dute, euskaragaz bat egiten dute.

—Zenbat taldek egin ohi dute bat kantaldiagaz?

—Normalean, 30 talde inguruk parte hartzen dute kantaldian. Horrez gainera, sailkapenak egiten ditugu, barbarako kirolari guztiek bat egiten dute eta elka-

rregaz abesten dute; beste aldetik, politikariak abesteko batzen dira. Hala, hainbat eremutako kideek bat egiten dute euskararen alde.

—Zer-nolako harrera dauka kantaldiak, herrian errotuta al dago?

—Bada, egia esan, harrera oso ona dauka, barbarako, gauean egin ohi den afari-rako sarrera guztiak beti agortzen dira.

«Ekainaren 21ean, barikua, arrastiko 19:00etan Larrabasterrako plazan»

Herriko jendeak kantaldia egiteko eskatzen digu. Horregatik ere, urtez urte egiten jarraitzen dugu, sekulako lana da, baina jendea oso gustura egoten da.

—Zeintzuk dira aurtengo kantaldiaren nondik-norakoak?

—Ekainaren 21ean, Larrabasterrako plazan hasiko da arrastiko 19:00etan, eta hortik abiatuko gara; afaria, oster, 21:00etan izango da Urko Kiroldegian, bertan eragileek abestuko dute. ○

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentabxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala
urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITZESKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

EKAINAREN 30EAN, 2. ESKUKO AZOKA

Iaz bezala, aurten ere 2.eskuko azoka izango da Berangon ekainaren 30ean, domekan. Hala, elizaren ondoko landan goizeko 11:00etatik 15:00etara 2. eskuko produktuak erosi ahalko dituzte bertaratutakoek. Pagotxak erosteko aukeraz gain, bertan umeentzako tailerrak eta musika egongo dira. Sal-tzaile guztiek 2. eskuko produktuak salduko dituzte, eurek erabakitako salneurrian.

LUDOKLUBAREN ESKAINTZA EKAINEAN

Eskaintza zabala antolatuta du ludoklubak 10-14 urte bitartekoentzat: ekaineko astelehene-tan aisialdi birtuala landuko dute; martitzene-tan, logika-jolasetan jardun ahalko dute; egu-aztetenetan, esperimendu zientifikoak egiteko aukera egongo da; eguenetan, eskulanean txanda izango da; eta barikuetan, ginkana zein birziklopiadetan parte hartzeko aukera izango da. Danak arrastiz izango dira, Berangoeta kultur etxean, barikuetan izan ezik, orduan Santa Ana kultur etxean.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regarazizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Ileeta kalea 1 • ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Luis de la Fuente > burdin-hesia, argazki

“Lana didaktikoa da; gaur egungo hesiaren egoera, eta non dagoen erakusten du ”



Urri osoan ikusgai egongo da barriro Uribe Kostan; Sopelan hain zuzen

Luis De la Fuente berangoztarrak burdin-hesiaren argazki-lana egin du; aurreko hiletan Berangon ikusgai izan da. Lanbidez sukaldari den arren, pasioa du argazkigintza; hala, bere lehen lanaren nondik norakoak kontatu dizkigu.

—**Zer dela-eta argazki-lan hori?**
—Hasteko nire gurasoek burdin-hesia bisitatu zuten, eta ondoren Berangoko museora etorri ziren, hori izan zen hasiera batean nire arreta piztu zuena. Horrela, saiakera egin nuen; argazki batzuk atera nituen, eta gustatu zitzaidan. Bilboko argazkilari bategaz harremanetan jarri nintzen, eta berak esan zidan lan interesgarria izan zitekeela; didaktikoa, historikoa. Hala, mapak eta lekuen erreferentziak eskuratu nituen, eta lana egiten hasi nintzen. Ideia Berangon dagoen museoagaz oso lotuta dago, hortik motibazioa etorri zitzaidan-eta.
—**Lanak burdin-hesiaren zein eremu hartzen du?**
—Berangon eta Sopelan hasi nintzen, ondoren Barrikarako bidea hartu nuen,

Urduliz, Lauramendi, Zamudio, Larrabetzu. 5. sektorea deitutako eremua egin nuen. Konturatu nintzen lan oso handia zela, eta mugatu behar izan nuen eremua. Guztira, lanak 32 argazki dauzka, eta horietatik gehienak Sopelakoak eta

«Gaur egungo hesiaren egoera ez da oso ona; ez dago babestuta»

Larrabetzukoak dira. Izan ere, herri horietan hesiaren azpiegitura itzela da. Ba-
—**Zein egoeratan daude hesiak?**
—Egia esan, hesia ez dago egoera onean, apurka-apurka zaintza-lanak egiten ari dira; gaur egun, baina, oraindik, ez dago babestuta.
—**Hurrengo erakusketak, non?**
—Berango ostean, erakusketa ekainaren 10etik aurrera Larrabetzun izango da, eta urri osoan Sopelako Kurtzio kultur etxean ikusgai egongo da. o

Gema Araluze eta Izaskun Ibarra > jantzi-artearen

“Erakusketaren bidez jantzi tradizionalak zabaldu gura ditugu”



Gainera, herriko dendetako erakusleihoetan gaiagaz lotura daukan zerbait ikusgai jarriko da

Ekainaren 6tik 16ra bitartean Gema Araluzek, Izaskun Ibarrek beste lagun batzuen laguntzagaz batera jantzi tradizionalen erakusketa antolatu dute Gorlizko Sertutxena aretoan. Horren barri emoteko, Uk eurek egon da.
—**Zer dela-eta euskal jantzi tradizionalen erakusketa?**
—Bada, orain dela urte batzuk, 2005ean hain zuzen, ikusita herriko jaietan inork gutxi jantzen zituela ohiko jantziak, pentsatu genuen, polita izan zitekeela jaietan baserritar zein arrantzale jantziak kalera ateratzea; horregatik, lagun pare bat batu, eta jantziak egiten hasi ginen, eta horrekin batera, herriko beste koadrila batzuk animatu genituen, gauza bera egiten. Horrela, ordutik aurrera jende gehiago animatu da herriko jaietan baserritar zein arrantzale jantzerak. Are gehiago, herriko jaietz gain, gaur egun gero eta kultur-ekitaldi

gehiago antolatzen dira udalerrian, eta horiek ere aukera emoten dute baserritar jantzeko: triki-poteoa... Eta erakusketa, horren harira antolatu dugu; jendea ohiko jantziak kalera ateratzera animatzen, tradizio hori zabaltzeko.

«Erakusketan ikusgai dauden jantziak, Gorlizen bertan eginak dira»

—**Zenbat jantzi dago ikusgai?**
—Sertutxena aretora hurbiltzen denak guztira 37 jantzi ikusteko aukera izango du; 27 emakumeenak, eta 10 umeenak. Horretaz gain, hainbat garaitako argazkiak ikusgai daude. Herriko 40 emakume aritu dira jantziak egiten azken urteotan. Hortaz, erakusketan egongo diren jantzi guztiak Gorlizen eginak dira. Ea erakusketa ikusten duen jendea ere, jantziak egitera animatzen den, gero, noski, jaietan jantzeko! o

zure publizitatea hemen!

publiuk@aldizkaria.biz

Tf. 944 911 337



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

BARRIKAKO I. MARGOLARI GAZTEEN LEHIAKETA

Ekainaren 16an, domekan, Barrikako Udak I. margolari gazteen lehiaketa antolatuta du. Bertan 1-17 urte bitarteko haur eta gazteek parte hartu ahaliko dute. Lehiaketaren gaia Barrika bertatik begiratuta izango da, eta lan guztiak kalean egin beharko dira goizeko 09:00etatik arrastiko 17:00 arte. Horrela, tarte horretan, lehiakideek 09:30ean, berbarako, euskarri zigilua jartzeko ordubeteko epea izango da. Lanak entregatzeko, osterara, arrastiko 16:30etik 17:30era izango da epea. Lehiaketan 3 sari kategoria izango dira.

Info+: www.barrika.net

“GURE ESKU DAGO” AURKEZPEN-HITZALDIA PLENTZIAN

Orain dela aste batzuk “Gure esku dago” dinamikaren barri emon zuten Euskal Herri mailan. Hala, dinamika gertutik ezagutzeko, Plentziako Goñi Portal kultur etxean ekainaren 13an aurkezpen-hitzaldi irekia antolatuta dute arrastiko 19:00etatik aurrera.

ARGAZKI ERAKUSKETA BARRIKAN

Barrikan ekainaren 21era arte Nagusien Etxean argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai izango dira. Hala, bertaratu-takoek egileen lanak ikusteko aukera izango dute, baita bozka emoteko aukera ere, lehiaketako irabazleak aukeratzeko.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Barrika

Sanjuanak ospatzeko egitarau zabala Barrikan; udako solstizioa hemen da!



Ekainaren 21etik 24ra bitartean hamaika ekimen izango dira

Udabarria ohiko poztasuna eskaini barrik joan zaigu, orain udari ongi etorria emoteko ordua da. Eta haregaz batera gurean ospatzen diren lehen jaiei: *sanjuanak*. Izan ere, Leioan ez ezik, Barrikan ere gogoz ospatuko dituzte jai hauek, eta horretarako egitarau zabala antolatuta dute. Ekainaren 21ean, barikuan, arrastiko 19:30ean jaiei hasiera emongo diete, txupinazoagaz eta pregoia irakurtzeagaz. Gauean, osterara, 21:30ean bertso-saioa egongo da, ondoren 23:00etan erromeria Euskalduna Alaiki taldeagaz. Ekainaren 22an, barriz, goizean goiz, 09:00etan ibilaldi herrikoia izango da Barrikatik abiatuta, ondoren 12:30ean indarrak berreskuratzeko pintxo-poteoa izango da, ordu berean ere, plazan herrikirolak. Arrastiko 19:00etan aldiz, umeen txanda helduko da Hipo eta Tomax pailazoan antzezlanagaz. 20:00etan barriz, saiheski-jan herrikoia izango da, eta ostean, 22:00etan musika izango da,

kontzertuen ostean, barriz diskofesta. Domekan, San Juan bezpera goizean nekazal eta artisautza azoka izango da, 11:15ean sukalki-txapelketan parte hartzeko aukera izango dute barrikarrek. Eguerdian, gainera, euskal dantza erakustaldia egongo da. Egun akabuan,

“Hilaren 23an, 22:00etan San Juan suagaz batera, Zirkale ikuskizunagaz gozatzeko aukera”

21:00etan Oliver magoaren antzezpena ikusgai izango da. Ondoren, San Juan sua piztu eta *Zirkale* ikuskizuna ikusgai izango da. Gainera, txokolate-jan herrikoia gozatzeko dute bertaratu-takoek. Jaiei agur esateko, astelehenean, herribazkaria egongo da eguerdiko 14:00etan plazan, eta arrastian, dantzatzeko aukera izango da. Hala, egitarau oparoa solstizioa behar bezala ospa dezagun! ○

Eka. 10 - Eka. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **‘Gorlizko 2013 Uda’ azalerako II. lehiaketako lanak.** Ekainaren 14ra arte. Sertutxenan.

► **Euskal jantziak.** Ekainaren 16ra arte. Sertutxenan.

ERANDIO

► **Goitibehera-lasterketa 2012.** Ekainaren 16ra arte. Udalaren erakusketa gelan.

PLENTZIA

► **Margolan-taldea.** Ekainaren 17tik 28ra. Goñi Portalen.

GETXO

► **Kongo abian.** Ekainaren 25era arte. Algortako kultur etxean.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Denboraren korapiloak.** Ekainak 18, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrea. Doan.

GETXO

► **Ipuinaren ordua: El elefante que perdió su ojo.** Ekainak 20, 18:00etan. Villamonteko haur-liburutegian. Doan.

BERANGO


► **Adagio ballet elkartearen emanaldia.** Ekainak 22, 19:30ean. Berango Antzokian. Doan.

LEIOA

► **CDART dantza-gala.** Ekainak 22, 19:30ean. Kultur Leioan. 6 euro.

SOPELA

► **Damas, señoras, mujeres.** Ekainak 22, 19:30ean. Kurtzio kultur etxean.



Info+: www.leioamenditaldea.com

► Mendi Astea

Leioako Mendi Astean hamaika ekitaldi

Ekainaren 17ra arte luzatuko da aurten Leioako mendi taldearen Mendi Astea, Kultur Leioan. Besteak beste, 11n eta 13an, Mendi Tour zinema jaialdiko filmak emongo dituzte, 20:00etan; eguaztenean, hilak 12, Groenlandia eta Islandiari buruzko proiektzioa izango da; barikua 14an, *Realidad aumentada* proiektua aurkeztuko dute, 20:00etan; zapatua 15ean, mendi taldeko presidenteei omenaldia egingo diete, 18:30ean; domeka 16an, azkenik, urteera egingo dute Burgosera, Nevero del Polluelo mendira. Gainera, Mendi Asteak iraun bitartean, Carlos Goyarrolaren koadroak ikusi ahaliko dira: Leioa mendi taldeko bazkidea da eta bere kabuz ikasi du margotzen.

• Non: Kultur Leioan • Noiz: Ekainaren 10etik 17ra

MUSIKA

GORLIZ

► **Gitarra errezitaldia.** Ekainak 15, 19:00etan. Kiroldegian.

BERANGO

► **Musika eskolako ikasleen entzunaldia.** Ekainak 14, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

ERANDIO

► **Angel Arellano gitarra elektriko**

jotzailea. Ekainak 15, 20:30ean. Irailaren 23a plazan. Doan.

► **Musikaren Europako Eguna.** Ekainak 22, 19:30ean. Astrabuduko Josu Murueta plazan.

GETXO

► **Moby Dick.** Ekainak 21, 21:30ean. Romoko Momo Puben.

LEIOA

► **Pop-rock lehiaketaren finala.** Ekainak 14 eta 15, Sakoneta eskolan.

ZINEMA

BERANGO

► **La vida de Pi.** Ekainak 15, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

► **El origen de los guardianes.** Ekainak 16, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

SOPELA

► **Frankenweenie.** Ekainak 16, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.

BESTEAK

PLENTZIA

► **Aurkezpena: Gure esku dago dinamika.** Ekainak 13, 19:00etan. Goñi Portalen.

ERANDIO

► **Carmen Martinezen liburuaren aurkezpena.** Ekainak 14, 19:30ean. Astrabuduko kultur etxean.

GETXO

► **Toponimia-ibilbidea: Getxo barria.** Ekainaren 15ean, 09:00etan. Neguriko El Carmen elizatik.

► **San Juan jaia.** Ekainaren 23an. Algortako Geltokia plazan, herriko elkarteek antolatuta.

GORLIZ

► **Dantzari Txiki Eguna.** Ekainak 15, 11:00etan. Herrigunean.


► **Itsasargira bisita.** Ekainak 23, 11:00etan. Hondartzape aurrean.

LEIOA

► **Jota-txapelketa.** Ekainak 16, 12:30ean. Errekalde plazan.


SOPELA

► **Literatur solasaldia: Uxue Alberdi.** Ekainak 20, 19:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.



Udako trinkoak eta barnetegiak

Uribe Kostako AEK
94 430 47 34 • lauxeta@aek.org • www.aek.org



[albuma]



Lamiako Maskarada

Mari, Sugaar, Basajaun, Aker, Inguma, galtzagorriak, sorginak, lamiak eta besteak gau-jaira bidean jarraitu genituen maiatzaren azken egunean. Urtero legez, loraileko azken barikuan izan zen batza. Lamiako Maskarada taldeak 1979an lehenengoz egindako euskal mitologia-historiaren antzezpenak aurten ere lagun andana batu zituen. Lamiakoztarrak beste behin gure historia, istorio eta ohituren jagole.

Argazkiak: **Hodei Torres**





Egurrezko zubia

Gobela ibaiaren gainean

Horrelako harribitxirik topatzea zaila da gaur egun, horregatik dira hain garrantzitsuak gisa honetako argazkiak, gure historiaren eta arkitekturaren gordailu direlako. Leioakoa zen irudi honetako zubia eta Gobela ibaia zeharkatzen zuen Pantaleon Arestiren etxe aurrean.

XX. mende hasierakoa da, izan ere, 1915ean adostu zuten porlanezko beste zubi batek ordezkatzeko. Lan hori Leioako garapen-prozesu baten baitan koka daiteke, garai hartan bihurtu baitzen errepide itsasadarraren alboko zirgabidea. Irudia *Leioa a través de la historia* liburuan jaso zen, Ana Lopez Asensiok idatzia eta Leioako Udalak argitaratua.

Leioa a través de la historia liburutik hartuta

[berbetan]

“Kantari izan nahia oso fribola zen neska batentzat. Pobreen etxean hori ezin zen aipatu ere egin. Lana zenik ez zuen inork pentsatu ere egingo”, hala gogoratzen ditu hastapenak Amaia Zubiriak (Zubieta, Gipuzkoa, 1947). Orduetik 30 urte eman ditu kantagintzan: Txomin Artolagaz Haizea taldean (disko bi: *Haizea* (Herri Gogoa, 1976) eta *Hontz gaua* (Xoxoa, 1979)); gero Pascal Gaignegaz lan bi (*Egun argi hartan* (Elkar, 1985) eta *Kolorez eta ametsez* (Elkar, 1986) eta zinemarako musika ere bai (*Segoviako ihesa*, *Mikelen heriotza*, *Zergatik Panpox* e.a filmeetarako); Txomin Artolagaz barrero batuz eta Joxan Goikoetxeagaz hiru diskoko *Folk lore sorta* bilduma; beste hamaika kolaborazio egin ditu hainbat musikarigaz, eta bakarkako ibilaldian: *Amonaren mengantza* (IZ, 1995), *Hou Pittu Hou* (Elkar, 1998), *Mami xuri* (1998), *Haatik* (Elkar, 2002), *Nabil* (2008, Elkar) eta *Amona Mantangorri* (Brians Records, 2010). Euskal musikagintzaz, kulturaz, feminismoaz... beragaz berba egitea: plazera!

Amaia Zubiria

Ahots liluragarria, berba zuzena

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Argazki Press**

—Kantagintzan 35 urte, horien lekuko eta egile. Ostera, nozbait esan duzu zalek jarraitu-maitatu arren, “ez dakitela oso ondo” zer egiten duzun. Benetan, hala sentitzen duzu? Zer duzu gaurko musikari gazteei kontatzeko, aholkatzeko?

—Ez dakit gazteei batere interesatzen zaien nik esan beharko nukeena. Orokorrean, agian... Niri gertatzen zaidana, ez dakit inori interesatzen zaion. Zuk bide bat aukeratu duzu, eta bide horrek abantailak izango ditu, noski niretzat; baina gero, sozialki esan nahi dut, ez dakit beharrezkoa zaren, hori da gauza. Hori besteek esan beharko luketen zerbait izango litzateke, nik esatea baino.

—Musikari ezaguna, ibilbide oparoduna. Zelakoa izan da euskal musikagintzan bizi duzuna?

—Zeuk diozu ezaguna naizela, baina niri iruditzen zait ez naizela batere ezaguna. Izen bat dut, eta jende askok izena ezagutzen du... Baina, seguru askok ez dakitela zer egin dudan, zer egiten dudan, ezta nor naizen ere. Nirekin gertatzen da ez dakitela edo lokutorea izan naizen, edo kantaria bai baina zer kantari klase, edo

kantautorea edo teatroan aritua... Ez dut uste asko dakitenik! Hori korriente komertzialetan gehiegi sartu ez naizelako dela suposatzen dut. Euskaraz kantatzen dugunok oso ibilbide laburra daukagu zentzu horretan, edo estua esango nuke, luzea denboran baina, estua: gurea hizkuntza minorizatua da; horren barruan ez dugu rock egiten; eta emakume-gaiak jorratzen ditut! Gainera, badira gauza batzuk instalatuak daudenak, esan nahi dut: hemen gizonezko ahotsak maite dira, indarra asko maite da, indarra noski

ko hitzak, bada... Nik ez dakit zenbateraino jendeak dakien zer kantatzen ari den. Konturatzen zara kantu errazak maite dituztela, kantu tradizionalak, betidanik kantatu direnak... Testuetan sartzen zarenean, uff! Horrek lana eskatzen du! Eta emakume-gaiak badira, pixka bat murrizten du. Gizon asko ez da oso inplikaturik sentitzen gauza horietan, geroz eta gehiago agian, baina ez gaude hor. Eta erraztasunera, ohituta gaude. Gero, ez dakit zenbateraino egia den euskaraz ulertzen dugula...

“Benetan ezagutu nahi nauenak derrigorrez nere musika entzun behar du”

fisikoa... Hori jada oso instalatua dago memoria orokorrean, eta badu berezko inertzia bat, hori batetik. Gero, bestetik, euskara ere... Bai, euskaraz orain dela 40 urte baino gehiago egingo da, baina euskaraz pentsatzea beste gauza bat da. Eta bada beste zera hori: testuak ez badira poeta edo idazle ezagun batenak, edo kultu-

—Emakume-gaiak aipatuta, Emarock proiektuan parte hartu duzu. Zer irizten diezu halako egitasmoiei, bere helburuei?

—Gauza bat esan behar dut, eta etorri zitzaidan neskari ere esan nion: Emarock-ek, rock izena hor darama eta nik ez dut rocka egiten. Badakit niregana etortzean izen baten bila etorri direla, berriz ere. Eta



hau ez dut negarrez esaten, ez da purrutada bat. Nik ulertzen dut hori dena; baina, berriz ere nitaz gauza bat eskatzen dute, eta ez da akaso nik beharko nukee-na, edo nik egiten dudanak beharko lukena, agian... hor uzten dut zalantza bezala. —**Zure esperientziaren, ibilbidearen bari emotea bilatzen dutela ez duzu uste?** —Eta izena! Esatea: *“horren alde nago!”*. Nik badakit horrek pisu pixka bat baduela. Baina *“... al olor de la flor, se le olvida la flor”*; jendeak badaki Amaia Zubiriak hori bultzatu duela, baina eskatu dutenek ez dakite Amaia Zubiriak zer egiten duen... —**Ibilbideagatik eta ekarpenagatik bazara nor gaur egun euskal musikagintzan dabilizan, besteak beste, emakumeentzat; eta horretan jardun gura dutenentzat esperientzia transtimiti dezakezu...** —Bai, ni seguru nago badaukadala; baina, zenbateraino dago egiten den hori fortzatura... Zenbateraino egia den ala behartuta sentitzen garen horren eta haren laguntza edukitzera geure proiektua aurrera ateratzeko. Hori askotan gertatzen da; beno, erantzuna ere ez dago nire gain, ez dakit nork eman beharko lukeen. Nik bakarrik eskatuko nuke: gauza horietan guztietan gardenak izan gaitezten; eta benetan ezagutu nahi naudenak derrigorrez nere musika entzun behar du, nere letrak entzun behar ditu. Eta agian sorpresa txar bat aurkituko du, agian ez zaizkio gustatuko, edo agian asko gustatuko zaizkio...

—**Nabil diskoaren kontzertuak eskaintzen zabilta. Orain dela hil batzuk Campos Eliseos antzokian. Zelakoa izan zen kontzertua? Zer helarazi gura duzu?**

—Helarazi deus; eginda daukadan lan bat eskaintzen dut, eskaintzen dut nire kantua eta nire pentsamendua. Baina horretarako hara joan behar da, han entzun behar da, zuzeneko musika entzun behar da... Eta esango dizut: 70 pertsona zeuden, eta haietatik asko erdaldun hutsak, beti joaten diren horietakoak; horietatik hamarrek alde egin zuten dena euskaraz egin nuelako. Jakinez gero erdaldunak direla, batzuetan

esfortzu hori egiten dut, nahiz eta jakin denbora bikoizten duela erdaraz kantak pixka bat azaltzeak... Baina pentsatu nuen, 60 eta piku pertsona badaude ziur denak euskaldunak izango direla... Batzuetan akats hori egiten dut, edo ez da akats bat, agian horrek errealitatea bere lekuan uzten du. Hori da errealitatea, ez zineten han! Joan izan bazina, gaur jakingo zenuke zer

“Batez ere gizon intelektualen aldetik, izugarritzko prejuizioak daude neregan, beste emakume batzuegan ere bai...”

beste galdetu, egoera zein den... Joaten den jendea badakit oso gustura joaten dela; eta badakit gehienak emakumeak direla... Gizonezkoak ere etortzen dira. Baina, zuek, komunikabideetan zaudetenok eta, nik uste badela egin beharko zenuketen esfortzua, eta ez dena egiten. Ez nuke hau bronka bat bezala izatea, baina...

—**Esan esan, zer duzu komunikabideen lanaz esateko?**

—Horixe, interes falta hori. Eta prejuizioak ere... Ez duzu rocka egiten, ez zaude jada modan; inoiz ez naiz modan egon baina beno... Ez naiz gaztea; badago edade aldetiko diskriminazioa, beti egon da... Badago zer kontsideratzen den borroka eta estiloa, eta zer ez, hor ere diskriminazioa, *a priori* handi-handia. Halere, badakit etortzen den jendea oso harrিতa geratzen

“Min egiten diguten gauzetaz hitz egin behar da, poza ematen digutenetaz, erabat erazi nahi ditugunetaz...”

dela: *“ostia! Hara!”*, interesatzen da... Baina, badira *“aprioristika”* horiek, eta kasu askotan hala pasatzen ari da. Gero, gizonen aldetik, ohituta nago, eta batez ere gizon intelektualen aldetik-eta, izugarritzko prejuizioak daude neregan; ez bakarrik niregan, beste emakume batzuegan ere bai, bakoitzak bereak kontatu beharko...

—**Zelakoak entzun behar izan dituzu edo zelakoei aurre egin?**

—Entzun oso gutxi. Errealitateak demostratu egin dit; aurrez aurre inork ez dizu ezer negatiborik esaten. Baina, errealitatea hori da: ez zaituzte kontuan hartzen bere gauzetan... Intelektualentzat intrusoa bezala zara, *“nola ausartzen da!”*. Prejuizioa izango da baita ere, baina hori da nik ematen

ten diodan zentzua: *“ez bazara intelektual bat nola ausartzen zara zure letrak egiten hainbeste idazle on izanik gure herri txiki honetan!”* Eta nik horretan oso ausart jokatzen dut eta onartzen dut nire hitzak ez direla idazle on batenak; baizik eta nire hitzek esaten dute zehazki nik sentitzen dudana, beste inork esan ahalko ez lukeen bezala. Baina, sentitzen dut pixka bat bizkarretik goiti begiratzen nautela, esanez bezala: *“Ai, gaixoa! Pentsatuko du eztakize letrak egiten dituela, poesia egiten duela!”*. Ez, nik ez dut poesia egiten; emakume batek bizi izan dituen bizikizun horien pasadizo batzuk egiten ditut, simple, xuxen eta poetika pixka batekin nahi bada. Niri gustatzen zaizkit! Beste askori ere bai, badakit! Minoria, baina gutxiengo horri gustatzen zaizkie. Eta ezagutzen dut nire kantuak ezagutzen di-

tuen jendea ere bai! (kar, kar)

—**Kantari karrera eta zure bizitza sentimentala oso lotuta egon direla esaten duzu. Bizitza publikoan bizitza pribatuko galdera asko erantzun dituzu; gizonezko musikariei egiten ez zaizkienak...**

—Nik gustura egiten dut. Hor badago, aggg... halako aristrokazia bat bezala. Nik

ez dut desberdintzen, biak nire bizikizunaren atalak dira. Kantuak eta kantuak egiteak-eta nire izakeraren eta nire bizikizunaren atalak dira; maitaleak beste atalak edo berak ere, batzuetan elkartuta daude, bestetan bananduak. Baina ezin deza-kezu kanturik egin zeure sentimentuez ari ez bazara; nik, behintzat, ezingo nuke. Nire bizikizunez hitz egiten dut, beti! Meta-

“Ahal banu, nire kasa grabatuko nuke; sekula ezin izan dut, pobrea naiz, baina nik aukeratu dudan bidea da”

forekin-eta, lengoaia horrekin... Gainera, amorru pixka bat ematen dit entzuten dudanean, erakusteko zenbat dakiten edo zenbat irakurri duten, askok denbora gutxian besteen zitak, bizikizunak-eta goraitzen dituztela; bere buruez esateko ezer ez balute bezala... Pretensio edo pedanteria hori ez dut batere maite. Ordea, beste batzuk pentsatuko dute nirea pedanteria dela, umiltasunaren pedanteria...

—**19 urtegez ezkondu, 25egaz 3 umeren ama, tartean kantagintza utzi... Gizonezkoie inoiz ez ala gitxitan galdetzen zaie...** —Hori euskaldunen zera petoa da... Gogoratzen dut oso laguna izan nuen kanta-

ri mutiko batek esan zidana: *“niri amorrua ematen dit gizon pitoak, kantari pitoak...”*, hau da, berarentzat kantariak ziren baina ligatzeko! Eta hori txarra zen. Esan nion: *“zergatik txarra da zuretzat?! Bakoitzak duena ematen du, maitasunaren truke. Batzuek intelektual itxura, beste batzuek bere margoa... Bakoitzak daukana, eta dena lurutzeko da, maitasuna jasotzeko. Bizitzan*

hala da dena! Zergatik duzu horrekin hain bestelako prejuizio?! Horrenbesteko lotsa?! Zure sentimenduak ez dira besteenak baino okerragoak, hobeak, bitxiagoak, ezkutuagoak...” Gauza horiek tontakeriak iruditzen zaizkit! Min egiten diguten gauzetaz hitz egin behar da, poza ematen digutenetaz, gustatzen zaizkigun gauzetaz, erabat erazi nahi ditugunetaz... Eta kantari egiten badugu, gure egiteko era hori delako izango da. Idazten duenak idatzi beharko luke dakienaz; imajinazioz peto-peto badabil egingo ditu beste batzuk... Ez dakit non dagoen kaltea; baina gizonek badute ahal-keia edo lotsa edo, niretzat posea dena...

—**Zerbait barria sortzen zabilta?**

—Sortzen beti, hori ez da gelditzen. Baina, gauza bat da guk egiten duguna, eta beste bat komertzioa. Hori gertatzen da: ez bada saltzen ez dizute berriz deitzen. Nik 16 disko baditut, batezbesteko; baina, orain beste gauza batzuk interesatzen dira. Oso ondo iruditzen zait, gainera. Gustura nago gazteak entzuten ditudanean, eta ez hain gazteak... Badira nire adinekoak eta *“hain triste kantatzen duten”* horietakoak, baina gizonezkoak dira... Ez nuke hor sartu nahi; badirudi inbidiak mugitzen nauela... Eta ez zait gustatzen, ez dudalako inbidiarik. Baina ikusten ditut halakoak... besterik gabe! Diskoena komertzioa da, gaur egun disketeek-eta pott egin dute; banaka-banaka grabatzen dituzte. Ahal banu, nire kasa grabatuko nituzke beste gauza batzuk, baina ezin dut, sekula ezin izan dut egin, oso pobrea naizelako; baina hala da, nik aukeratu dudan bidea da. Baina ni sortzen beti; baina ezin dira grabatu. Ez dituzue sekula entzungo, eta ez dituzue faltan izango. Ez naiz David Bowie...

—**Ene!!! Ezkor zabilta gaur!**

—Ez! Beste gauza bat da zuk sinestea, baina ez naiz negarrez ari! Ez da nire estiloa! Ez naiz tristea! Eta ez da ezkortasuna, errealismo purua da! Hala da! o

Sormen-iturriak

—**Mina, haserrea, beti sorkuntza-iturri emaritsuenak... Poza ere aipatu duzu, aldiz hortik ez duzu hainbeste edaten...**

—Nola ez! Umorea erabiltzen dut, pila bat. Baina, zera gertatzen da: estilo eta ahots motagatik ematen du... Nirea melodikoa da dudarik gabe... Gauza krudel asko esaten dira rockean, gertatzen dena da beste erritmo eta beste energia fisiko batekin egiten dela. Nire letrak ez dira tristeak, ez; kritikoak dira, ironikoak ere bai... Batzuetan tristeak ere badira baina... bizitza bezala! Teatroan, tragedia handienak ere sorna-ironiarekin esan ahal dira... Konturatzen naiz nire izaera

dramatikoa dela; baina, ez dut asko ezagutzen ez denik! Hori batetik, eta bestetik, bakoitzak musikan zer jartzen duen kontua dago: musika entzuterakoan zer jartzen duzu: erraztasuna ala kolaborazioa? Musika erabiltzen duzu batere jaramonik egin gabe ala inplikatzeko zara? Entzuleak ere ez dira beti berdinak. Batzuetan egiazko dramak edo tragediak kontatzen dira, baina txunpa-txunpan badirudi ez direla tristeak... Estilo kontua da. Utzi zaituzte, edo norbait hil da, ala begira zeregatik libratu naizen! Hori ere pasatutako tragedia baten komentarioa da, baina, umorearekin! Itxurari garrantzi

handiagoa ematen diogu: melodikoa da beraz tristea... Gogoan dut, gazte-gaztea nintzanean, kanpoko jendea etortzen hasi zenean, esaten zutela gure kantuek elizako kantuak ziruditelako! Bilgarria baino ez zen, itxura; ez ziren tristeak, maitasun kantuak ziren! Modak daude, hizkuntza baten mende gaude, ingelesa, hemen frantsesa edo gaztelania ere bai; eta horiek markatzen dituzten arabera eta modak jarraitzen ditugu, batere arazorik gabe! Aldiz gureak ez dira beti hor sartzen! Batzuk bai, beste batzuk beste ildo batzuei lotzen zaizkie. Baina, horietarako inplikazioa behar da!



San Nikolaseko perlak

Algortako ikastolaren 50. urteurrenak garrantzia hartu du zenbaki honetan, horren lekuko Sakonean ataleko erreportajea, baita argazki-sorta hau ere. Perla ederrak jaso dituzte ikastolakoek garai desberdinetako ikasleen eta gurasoen artean. Irudi danak batu dituzte egutegi batean, urteurrena ospatzeko. Perlak diogu hasierako urteetatik gaur egunera arteko ibilbidea osatu dutelako: ikus daitezke txaleta eta Bidebarriko lokalak, baita egungo eraikina ere. Irribarrea eragin eta oroimen politak piztuko dituztelakoan, zorionak San Nikolas eta gozatu irudiokaz!

Argazkiak: **Algortako San Nikolas ikastola**







Algortako San Nikolas ikastola > 50 urteko historia bizia

Izanez eta ekinez, ezkututik argira, 50 urte bete du Algortako San Nikolas ikastolak

Ezkutuan sortu ziren ikastolak 60ko urteetan eta Algortako San Nikolas izan zen lehenengoetariko bat. Ikasturte honetan 50 urte bete du eta hainbat ekimen egiten ari dira urteurrena ospatzeko. San Nikolasen historia ekarri dugu orriotara, gainontzeko ikastolen historiara ere hurbildu asmoz.



Familia sortzaileen omenezko plaka, ikastolan

San Nikolas parrokiaren babespean antolatu ei zuten dana, hortik ikastolaren izena. 1963an sortu zuten Algortako San Nikolas bederatzi familik: Agirre Zarate, Aristegi Anduiza, Azkagorta Aretxabala, Garamendi Garate, Garamendi Uribe, Garate Urretxua, Iturriaga Zabala, Rekalde Uriarte eta Zeberio Garate. Gotzon Garamendik ume bat euskaraz entzun zuen Bilboko denda batean: gal-

detu zuen umeak ea zelan zekien euskaraz horren ondo. Bilbon hasiak ziren Ikastolen lehen mugimenduak eta, 10eko taldea osatuz gero irakaslea bidaliko zietela agin zieten; esan eta egin.

Ezkutuan hasitako proiektu txikiak 50 urte bete du daborduko eta osasuntsu dago. Jokin Bilbao Lopez ikastolako presidente eta ikasle ohiagaz, eta Gaizka

“Euskara debekatuta, ezkutuan hasi ziren, etxeetan, hilerro lekualdatuz”

Arrizabalaga Zubieta administratzaileagaz elkartu gara ikastolaren historia sakonago ezagutzeko asmoz.

Hasierako urteetan, euskara debekatuta, ezkutuan ibili beharra zegoen. Euren etxeetan emoten zituzten eskolak, hilabetero lekualdatuz eta baliabide urriak: sukaldean, egongelan, lurrean eserita... Urte gitxian asko hazi zen ikasle-kopurua eta bestelako lokalak behar izan



Omenaldia egin zieten sortzaileei maiatzean

zituzten: Urretxua txaleta eta Bidebarri kaleko lokaletan finkatu ziren. 1969an baimendu zuten ikastola lehen hezkuntzako zentro ez ofizial gisa; urtebete beranduago sortu zuten kooperatiba. Pasaite asko kontu ei liteke. Berbarako, paperak egiteko familia batzuek emon zutela aurpegia, beste batzuk fitxatuta

zeuzkatelako “*separatista*” gisa. Ikasketzaileak joaten zitzaizkien asanbladetara, baita eskolara ere.

Gurasoek lan handia egin zuten, finantzaketa edota irakasleak lortzeko. Eta lortu zuten herritarren babesa: “*Seme-alabarik ez zeukaten askok ere lagundu zioten ikastolari: euskara galduta zeu-*

katen eta ez ziren euskaldunak; bai, ordea, euskotarrak”.

Egungo eraikina, Arene azpi kalekoa, 1973an eraikitzen hasi ziren eta ikasle-kopuruak handituz jarraitu zuen: 15 urteren buruan maila danak eskaintzen zituen ikastolak, urte batean lehenengo UBI ere emon zuten, Getxo III institutua sortu baino lehen.

90eko urteen hasieran, Ikastolak sare publikoan sartzeko aukeraren aurrean, kooperatibistek erabaki zuten ikastolen sarearen barruan mantentzea.

“Ikastolaren sorrera hizpide, dokumentala kaleratuko dute urtea amaitu baino lehen”

Une zailak ere bizi izan zituen ikastolak, adibidez, 90eko urteetako jaiotzasaren jaitsierak eragindakoa. Egoerari aurre egin eta, gaur egun, hiru lerro dauka ia maila danetan.

Sendo iritsi da San Nikolas urrezko ezteietara, baina ez ditu ahaztu oinarriak: sorrerako garaiak hizpide, dokumentala kaleratuko dute urtea amaitu aurretik. Zorionak eta urte askotarako! ○

Jokin Bilbao Lopez > Ikastolako presidentea

“Euskara zabaltzeko eta herria euskalduntzeko sortu zuten ikastola eta proiektu beragaz jarraitu dugu 50 urtez”

—Seme-alabek euskaraz ikasteko asmoz sortu zuten ikastola?

—Ez horregatik bakarrik. Sortzaileek ikusi zuten euskara desagertua zegoela herriaren bizitzatik, eta euskara berreskuratu guran sortu zuten ikastola, aurreko belaunaldiek galdutako euskara berreskura zezaten euren seme-alabek. Oso ausartak izan ziren umeak nolabaiteko “fikziozko” eskola batera bidaltzean, euren hezkuntza arriskatuz. Baina

argi zeukaten seme-alabek euskaraz ikastea gura zutela. Zortea izan zutela zioten, baina ez nago ados; zortea izateko aurretiko lana beharrezkoa da, eta horixe egin zuten beraiek: lan pila. Helburua zuten euskara zabaltzea eta herria euskalduntzea. Ez zuten sustatu San Nikolas ikastola bakarrik, inguruko herrietan ikastolen sorrera ere bultzatu zuten. Oso pertsona konprometitua eta oso langileak izan ziren. Poiektu

baten alde egin zuten eta proiektu beragaz jarraitu dugu 50 urtez.

—Dokumentala egiten ari ei zarete?

—Ikastolaren memoria berreskuratzeko eta sorrera zabaltzeko. Jaso ditugu sortzaileen lekukotzak eta aurten argitaratu gura dugu. Zorretan geunden aintzindariakaz.

—Lehenengo Ibilaldia Algortan izan zen eta 2002an ere antolatu zenuen?

—Lehenengoa Algortan izan zen, Uribe

Kostako ikastolek antolatuta. 2002an, ordea, bakarrik antolatu genuen, baina lehenengoaren helburu desberdinagaz: 90eko urteetan jaiotza-tasak behera egin eta ikasle kopurua gitxitu zen urte haietan. Une delikatua izan zen: 4 lerro izate-tik 2ra jaitsi ginen, finantzaketa gitxituz. Ibilaldiaz lortu zuten buelta emotea eta hirugarren lerroa berreskuratzeko. Egun hiru lerro dauzkagu maila gehienetan eta gora goaz; beraz, krisi garaian lanpostuak sortzen ari gara. Gaur egun ere ikastola bere iraganaren ispilu da, azken finean, zaharkituta badago garai bateko dirubaliabideen faltagatik da: dirua badaukazu eraikina barritzen zoaz eta agian ikastolak buelta bat behar du alde horretatik.

Baina orain sendotu gara ekonomikoki, matrikula gora doa eta hobeto gaude: ospea daukagu herrian, pedagogikoki oso emaitza onak ditugu, irakasle kualifikatu eta esperientziadunak dauzkagu, eta herri erdigunean gaude; hori da gure arrakastaren arrazoia. Erronka da etorkizunean proiektu ilusionante honeguz jarraitzea, erabarritzea eta beste 50 urte jarraitzea.

—LOMCE legeari zer deritzozue?

—Erabat kontra gaude. Lege proiektua atzera botatzea eskatzen dugu, ez dauka zentsurik eta ez dago nondik hartu. Ikastolok gure proiektua daukagu, EKI, eta horregaz goaz aurrera. Derrigorrez badator ikusiko dugu zer gertatzen den, baina erabat kontra gaude. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarria



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Loreak errepedean filma

Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendu duten filma **muntatze-lanetan**



Itziar Ituño (argazkian), Itziar Aizpuru eta Nagore Aranburu dira filmeko aktore nagusiak

80 egunean fikziozko film luzeak jasotako kritikaren oneritziagatik, eta *Lucio* dokumentala zein *Sintonia* eta *On the line* film laburrak aurrekari izanda, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga prestatzen dabilen lan barriak honezkero ikusmina sortu du. *Loreak Errepidean* honetarako, gainera, Telmo Esnal dute zuzendari-laguntzaile.

Apirilaren 8an ekin zieten grabatze-lanei Oiartzungo Altzibar auzoko obra batean, Javi Agirre argazki-arduradun zela. Horrez gainera, Zarautz, Bera, Idi-azabal, Zumarraga eta Donostian grabatu dituzte lekutzeak, baita Leioan ere. Izan ere, maiatz hasieran, EHUko Leioako campuseko medikuntzako fakultatean grabatzen ibili ziren. Handik aste-bete ingurura amaitutzat jo zuten Iru-soin eta Moriarti zinema-etxeek ekoitzi duten film honen grabatze-jarduna; hala, orain muntatze-lanetan dabilta. Estreinaldia irail-urrian, Donostiako Zinemaldian edo, egin gura balute ere, dago-

eneko iragarri dute “zail izango dela” ordurako amaitzea.

Itziar Aizpuru, Itziar Ituño eta Nagore Aranburu dira filmeko aktore nagusiak, Joxean Bengoetxeagaz batera. Lanaren trama hala labur daiteke: “*Beñat auto istripuan hil da, eta haren heriotzari aurre egiteko hiru pertsonaik jarraera ezberdinak*”

«Maiatz hasieran Leioako Medikuntza fakultatean ibili ziren grabatzen»

hartzen dituzte. *Tere ama, Lourdes alarguna eta Ane lankidea izan dira bizipenen erakusle: amak ez du ahaztu nahi, ez zaio ondo iruditzen ahaztea; alargunak praktikoa izan nahi du, aurrera egin eta bizi, itxuraz behintzat*”. Aneren jarraera ezagutzeko filma estreinatzeraz itxoin beharko. Zuzendarien esanetan, “*ez da thriller-a, ezta drama intimista ere, baina suspensea garrantzitsua izan da... umoretik ere badu zertxobait*”. ○

Txalaparta-jaia Algortan

UKTEST taldeak antolatzen duen ekimenak **10. urteurrena** beteko du **hilaren 29an**



Info+: UKTESTen facebook orrian, txalaparteuktest@gmail.com-en edo eguenetan Etorbizun

Urbe Kostako Txalaparta Ekimenetarako Sustapen Taldea (UKTEST) eguenero (20:00) batzen da Etorbizunaren egoitzan entseguetarako, eta urtean behin txalapartari eta txalapartariei begirako egun handia antolatzen dute; aurten, X. ekitaldia izango da, ekainaren 29an eta dagoeneko prest dute ume, gazte eta helduei zuzendutako egitaraua: Mikel Rotaetxek eskainiko duen txalaparta-meditazioagaz hasiko da goiza (11:00), gero hasibari, zale zein adituek txalapartari izateko aukera izango dute hainbat gunetan (12:30), libre jarduneko edo ikastaroan parte hartuz. Tripa-hotsak

txalapartaren doinua hartu orduko, 100 lagunentzako bazkaria prestatuko dute (entzaldada, paella e.a.; txartelak 10 euro balio du, izena emon behar da). Bazkalosteko kantu-saio herrikoia osten, Getxo Samba Skull taldeak perkusio-tailerra eskainiko du (17:00), Munduko Beat talde madrildarraren txalaparta ikuskizuna (19:00) egongo da eta, amaitzeko, Guda Dantza taldeak kontzertua eskainiko du (21:00) La Plaza tabernan. Txotx egiteko aukera, txalaparta baten zozketa eta txalaparta-poteoa ez dira faltako. Ekintzak Biotz Alai eta San Nikolas plazetan izango dira. ○

diskoak

Plethora
Mantisa
Autoekoizpena




Orain dela urte bi sortutako Zarauzko taldearen bigarren lan hau lehenengoaren lan hau lehenengoaren hardcore, rock eta punk-rock mugetatik urruntoago dago. Esan daiteke, indie rockaren eta poparen eremuetatik hurbilago dabilen doinu pausatuagoak, sakonagoak, melodikoagoak direla Plethora osatzen duten hamar kantuak.

Bilgua...
Aiko
Elkar



Aiko taldeak zortzigarren lana, *Bilgua (Pirineotako magaletan dantzan)*, aurkeztu barri du. Musika eta dantza irakasleek osatzen duten talde honek musika garaikideko 20 konposizio barri batu ditu dantza estilo tradizionalerako; horrez gainera, ttuntunaren talde instrumental klasikoak gaurkotzeko erronka barriagaz dator.

Gaua
Mikel Azpiroz
Mamusik



Donostiarrak pianoaren laguntza soilagaz osatutako hamar kantuko diskoa plaza-ratu du. Orain dela urte bi Pau Casals auditorioan (El Vendrell, Sant Salvador, Katalunia) grabatu zituen orain diskora ekarri dituen piezak. Diotenez, “*abesti lasaiak eta minimalistak dira, XIX. mendeko impresionismoaren, blues-aren eta gospel-aren iturrietatik edaten dutenak*”.

demoa > Larry Bird taldea

Nun, Scum to The Leader, Señores, Mobydick edota The Great Barrier taldeetan diharduten edo jardun duten Goiko, Alvaro, Claudio eta Xabi musikariek osatzen dute Larry Bird taldea. Bilbo Handiko taldetzat aurkeztu dute euren burua, baina esan liteke batek baino gehiagok ondo baino hobeto ezagutzen duela gure esku-aldea ere. Lehenengo demoa sareratu, eta taldearen euskarazko 6 kantu entzun daitezke azpian adierazitako guanean. *Entzun!* euskarazko musika aldizkariak azaldu duenez, “*indie etiketa gainditzen duen rocka (...), (post)hardcoretik abiatzen dira beste eremu batzuetara heltzeko, non emozioen arrastoari uko egin gabe, rocka, popa eta melodia definituak besarkatzen dituzten. Indie-rocka etiketa irakurri dugu euren Soundcloud-ean, baina beru ere motz gelditzen zaielakoan gaude*”.

Kantuak entzuteko:
soundcloud.com/larrybirdgara/tracks

bilduma-diskoa > Bilbao, mierda, R&R

MCD taldearen kantuak emon dio 80. hamarkadako erdi aldera Bilboko El Garage aretoan zuzenean (mahaitik) grabatutako 17 abestik osatzen duten bilduma honi. Grabazio haiek Kasba Studioko Marc Lloberak masterizatu ditu. Besteak beste Kortatu, Zer Bizio?, Cicatriz, Vulpess, Distorsion, Zarama, R.I.P. Baldin bada, Jotakie, Primitivos, M.C.D eta Vomito taldearen kantak daude Vomitopunkrock diskoetxe barriak kaleratu duen bilduman. Gainera, Garage aretoaren istorioak bazen dituen liburuxka ere eskaintzen dute.

Info+: vomitopunkrock.bandcamp.com

etorri
eta
ikusii!!

MORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bat)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]


Gure bilakaera ingelesez

Renotik bultzatuta, **euskal literaturaren historia ingelesez** jasotzen duen lana

University of Nevada, Renoko (AEB) unibertsitateko Euskal Ikasketen nazioarteko ikerketa guneak *A Basque Literary History* liburua aurkeztu zuen orain hil pare bat. “*Euskal literaturari buruz ingelesez sekula idatzi den lehen historia*” laneko kapitulu bakoitza mende bati dagokio eta generoka ere antolatuta dago, beren-berengi XX-XXI. mendeko literaturari ekiten dionean. Hiru kapitulu nagusik osatzen dute lana: lehenengoa, Ahozko euskal literatura; bigarrena, Literatura klasikoa (XVII-XIX. mendeak), eta azkena, Euskal literatura modernoa: XX. eta XXI. mendeak, horretan narratiba, antzerkia, saiakera, itzulpena, ume-gazteei begirako literatura e.a. aztertu dituzte.

«Euskaraz idatzitako literaturaren bilakaera, atzerrian ezagut dezaten»

Sei urteko lanaren emaitza Amaia Gabantxok itzuli du ingelesera; edizioaren arduradun Euskal Filologian doktorea, EHUKo irakasle eta Etxepare Institutuko Euskararen Sustapen eta Hedapenerako zuzendari Mari Jose Olaziregi izan da, eta beragaz batera testuen egileak ondorengo 12 euskal adituak dira: Jesus Mari Lasagabaster, Igone Etxebarria, Aurelia Arko-



Info+: basqueliterature.com/en/basque/historia

txa, Jean Haritschelhar, Joxerra Garzia, Beñat Oyharçabal, Lourdes Otaegi, Patri Urkizu, Xabier Altzibar, Xabier Etxaniz, Jose Manuel Lopez eta Estibalitz Ezkerra.

Olaziregiren esanetan, “*La osorik euskaraz idatzitako literaturari eskainia da (...) Euskal literaturaren bilakaeraren ikuspegi bat eskaintzen du, eta horretan eragina izan duten baldintza sozio-historikoena eta gure literaturak euskal gizartearen izan duen lekuarena ere bai. Aniztasun kritikoa da nagusi, eta kapitulu guztiak bat datoz lanen azterketa kritikoari emandako garrantzian. Esanguratsua da XX. mendeko euskal literaturak duen lekua*”. ◊

liburuak



Inurrien hiztegia
Mari Asun Landa
Pamiela

Erreterriko idazlearen azken narrazio laburren bilduma da; ez da hiztegia, ipuinok A letratik Z-ra antolatuta egon arren. Helduei begirako testuon protagonistak inurriak dira, eta euren arteko gertaerak gizakien arteko gertaeren isla dira: amodioa, errealizazioa, kultur aniztasuna, zahartzarua e.a.



612 euro
Jon Arretxe
Erein

Toure etorkina protagonista duen *19 kamera* nobelaren jarraipena plazaratu du Basauriko idazleak. Afrikatik heldutako ustezko anaiaren bisita jasoko du Tourek Bilboko San Frantzisko kaleko etxean, horrek eragingo dizkion buruhausteak dira genero baltzeko lan honen korapiloa.

[kirola]

Emakumeen kopa

Euskal Herriko Emakumezkoen III. Futbol kopa udan, **abuztura arte** jokatu da



Gutzira, hamar talde arituko dira koparen bila

Hirugarrenez jokatzen ari da Euskal Herriko emakumezkoen III. futbol-kopa. Txapelketa kirolariak osatutako Euskal Herria Kirola elkarteak antolatzen du, eta helburu du emakumeen futbola sustatzea baita Euskal Herri osoa barnebilduko duen txapelketa antolatzea ere. Hainbat dira lehiaketa honetan parte hartzen duten taldeak; A taldean, barbarako, Ipar Euskal Herria, Aurre de Vitoria, Arrasate eta Añorga; B taldean, ostera, San Inazio, Abanto, Osasuna eta San Juan; horiek dira, hain zuzen, maiatzean eta ekainean kanporaketak jokatzen dabilzanak. Hori-etaz gain, Athleticetik eta Errealak ere parte hartuko dute; haiek baina, finalerdietan sartuko dira, zuzenean. Esan bezala, ekainean eta uztailean, final-zortzirenak eta final laurdenak jokatu dituzte. Final erdiak eta finala, ordea abuztuaren izango da. Oraingoan, antolatzaileen esanetan, abuztuaren 21ean eta 22an finalerdiak jokatuko dira, Laudion eta Beasainen; finala, barriz, abuztuaren 25ean izango da Azpeitian. Hirugarren edizioa da honakoa, eta

antza txapelketa indarra hartzen ari da, denboraldia hasi eta amaitzeko erreferentziatzko bilakatzen ari da euskal taldeentzat. Azken edizioetan, emakumezkoen futbolak zaletu asko batu ditu, eta hori futbol-zelaian nabaritu ei da; izan ere, antolatzaileen aburuz, iaz Beasaineko finalean futbol-zelaia beteta egon zen. Era berean,

“Athleticek eta Errealak aurreko edizioak irabazi zituzten”

aurtengo finala jendetsua izatea aurreikusuten dute. Gainera, taldeen eta jokalarien aldetik erantzun oso ona jasotzen ari dira, eta horrek urterik urtera txapelketagaz jarraitzea ahalbideratzen du.

Aurten, Osasuna taldeak parte hartu du lehenengoz, eta esan bezala, Athletic eta Errealak zuzenean final erdietara sartuko dira; izan ere, Athleticetik lehen edizioa irabazi zuen, eta Errealak iazkoa. Horrenbestez, kirolaren bitartez parekidetasunaren eta ofizialtasunaren bidea urratzen dabilta. ◊

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA
KIROL moda**




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Deiene Garcia Iragorri > Eindhoven

“Ostutako bizikletak eros daitezke 10 euroan”

Herbeherek aspaldi erakarrita joan zen Deiene Garcia Iragorri Eindhoven hirira, horretarako arrazoi suturik eduki ez arren. Beti gustuko izan du kanpoan bizitzea, bai esperientzia barriak izateko, bai bere burua hobeto ezagutzeko. Hau ez da kanpoan bizi den lehenengo aldia, duela lau urte inguru Nikaraguan egon zen-eta bederatzi hilabetez, baina proiektu guztiz desberdinean murgilduta. **Euskal Herrian lan finkorik barik joan zen atzerrira, bere burua inon kokatzen ez zuela-eta, gauzak horrela, berak ere ez daki hurrengo urteetan non amaituko duen!**



Iztultzeko data barik joan zen Deiene Garcia Iragorri Eindhovenera eta gustura bizi da han. Helere, faltan botatzen du Euskal Herriko kaletar bizimodua.

Ezinbestekoa eta ezinezkoa

Ezinbestekoa da bizikleta: garraiorik garrantzitsuen da eta lehentasuna dauka. Ezinezkoa, barriz, nederlandera ikastea (hiru hilabetetan ikasten egon ostean, hizkuntza hori ez ei dago eginda Garcia-rentzat). Irakurtzea, tira, ez da horren zaila, baina ahoskera... ezinezkoa!

Zer bisitatu eta zer ez galdu

Ez da bisitatzeko hiririk ederrena, arkitekturari dagokionez behintzat. Bigarren Mundu Gerran hiriaren parte gehiena suntsitu zuten, beraz ez da antzinako eraikinik mantentzen. Halere badago zer bisitatu. Phillips hemen jaioa da eta horregatik industria handia dago. Aipatze-

koa da hark sortutako lehenengo gune industrialak, Strijp-S, gaur egun hiri sortzaile moduan ezaguna: bertan hainbat taberna, estudio, etxebizitza, merkatu, e.a. dago. Berez, horixe da hiriaren xedea gaur egun: Herbeheretako gune esanguratsu bihurtzea diseinu munduan.

Harritzeko modukoa

Bigarren eskuko kultura: bardin dio zer behar duzun, ziur aurkituko duzuna. Eta bizikleta-merkatu ezkutua: harrigarria da gauetan dagoen bizikleta trafikoa, ostutako bizikletak 10 euroan eros daitezke arazo barik.

Zer jan

Elikadura, orokorrean, oso txarra da: frijitu koipetsuak baino ez dituzte jaten. Kanean makinak daude: euro bat edo bi sartu, gura duzun leihatila ireki eta... hor daukazu zure jatekoa! ○



Nor da

Nongoa
Algortakoa
Adina
25
Zertan dabil
Au-pair, besterik aurkitu arte
Ikasketak
Goi mailako arte-hezkuntza ikasi du barne diseinuan
Noiz arte
Bost hilabete daroa Eindhoven-en eta oraindik ez daki noiz bueltatuko den

Non dago

Lurraldea
Herbeheretako Erresuma (41.526 kilometro koadro); gainera, Karibeko Aruba irla eta Holandarren Antillak Herbehereen koloniak dira
Hiria
Eindhoven, Amsterdam hiriburutik 100 kilometrora
Azalera
88,84 kilometro koadro
Kokapena
Herbehereetako hego-ekialdean
Biztanleria
209.286 biztanle
Hizkuntza
Nederlandera
Dirua
Euroa

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.

Herensugea

Orain arte erraldoiak ezagutu ditugu. Baina erraldoi guztiek ez dute gizaki antza, ezta pentsatu ere. Inoiz, herensugeei buruz ezer entzun duzu? Izaki fantastikoen elezaharrak. Baina, inork ikusi al ditu gure lurraldeetan? Inoiz hemen bizi izan dira?


Beste lekuetan bezala, Euskal Herrian, gure dragoiak izan eta ezagutu genituen. Tokia gorabehera, buru bakarra edo zazpi bitarte eduki ditzakete. Hori bai, beti gizaki edota abereei erasotzeko prest. Herensugea, Hiraunsugea... izen ezberdinak aipatzen dira Tuteratik Baionaraino.

Nafarroako Sakanan, Aralar mendilerroan, beheko arana so dagoen bitartean bere erasoak burutzen ditu, gero jango dituen behi zaharrak amildegietatik erroiztuz. Agintariek artz edo otsoen erasoak direla diote eta ez didate sinesten, begietan finkatu zaien izua Herensugeak baino ezin duenik sortu. Eta hauxe adibide bat baino ez da, lurralde guztietan gertatzen baitira antzeko erasoak.

Kondaira

Arrasate udalerritik gertu, orain dela urte asko eta asko, Herensuge bat bizi zen. Dauzkagun datuen arabera, buru bakarrekoa kasu honetan. Herensuge guztiek bezala, kalte ikaragarriak sortzen omen zituen inguruko herrietan. Hori dela eta, hura urrutu mantentzeko eta biztanleei kaltea eragitea saihesteko, biztanleek itun bat egin zuten harekin. Horren arabera, hilero zozketa egingo zen eta, bertan eskuratutako emaitza gorabehera, piztia elikatzeke eman go zuten bertan aukeratua irtetzen zena.

Mendean mantendu zen ituna, baina tratu horren ondorioak latzak izan ziren: biztanle kopuruak behera egiten zuten, izan



Herensugea. Ilustrazioa: Daniel Castello

ere, asko ziren piztiaren ahutzetan amaitzen zutenak.

Aitzitik, patuak nahi izan zuen behin, auzotar batek, bere emaztea zozketan aukeratzean, animalari aurre egitea erabakitzea.

«Beste lekuetan bezala, Euskal Herrian gure dragoiak izan eta ezagutu genituen»

Ez zion inori esan, baina momentua heltzean aizkora eta burdin barra bat hartuz, mendira igo zen, eta han bere emazte gaztea zuhaitz bati lotuta topatu zuen. Zuhaitz baten atzean geratu zen, piztiaren zain.

Orduak eman zituen, baina azkenean, Herensuge agertu zenean, haren aurka egin zuen. Hasieran aizkorarekin eman zizkion

kolpe batzuk, baina izakiak minik hartzen ez zuela ikusita, animaliarengana egin eta bi eskuekin burdin barra begian sartu zion. Horrenbesteko indarrarekin egin zuen, burmuina zeharkatu ziola. Espasmo batzuk eta gero, dragoia jausi egin zen.

Kasualitatez, eraso gertatu zen momentuan, atzerritik, Espainiatik etorritako erromes bat inguruan zebilen eta dena ikusi zuen.

Gure laguna herrira bueltatu zen, andrearekin batera. Guztiak harriturik geratu ziren, aho bete hortz, baina inork ez zien galdetu zer gertatu zen. Udallerriaren izena Arrasate bada ere, gaztelarazko Mondragon ere hor dago, “Monte del Dragon” (Dragoien mendia) esaeratik eratorria, erromesak mundu guztiari zabaldu baitzion berria. ○

[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane Tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOBI ORMAZABAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



GOSARIAK PINTXOAK

KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

Bakailao brandada

itsasoaren jakirik krematsuena

GURE ETXEA
taberna



Elikagaiak ondo prestatu ostean, 24 orduz hozkailuan egon behar dute

Oraingoan Gure Etxea tabernako barrara itzuli gara, bertako betiko pintxo bat gozatzeko: bakailao brandada. Pintxo egiten hasteko lapikoan olio txorrotada bota beharko dugu, ondoren berakatzatza txikitu, eta bertara botako dugu, eta berakatzagaz batera ia tipula oso bat txikituko dugu. Horiek su txikian egin beharko ditugu. Tipula gorritu denean, bakailao gezatua gehituko diogu lapikolari; aurretik baina, bakailaoa zati txikitatu moztuko dugu. Bakailaoa ondo nahastu beharko dugu egin arte, bitartean, esnegaina botako diogu, kantitate egokia botatzen ari garela jakiteko, bakailaoaren kantitate bera botatzea gomendatzen du tabernako sukaldariak. Esnegaina bota

ostean, pipermin gorri ale bat ipini, Cayenne motakoa. Nahikoa izango da elikagai horiek guztiak 5-8 minutuan egosten uztea. Ondoren, uretan minutu batzuk lehenago sartu dugun gelatina deshidratatua lapikora sartuko dugu. Hala, lapikoan ditugun elikagaiak irabigailuagaz nahastuko ditugu. Azkenik, pintxo guztiz amaitzeko, egindako nahasketa hozkailuan sartu beharko da 24 orduz. Eguna pasa, eta prest izango dugu ogi-xerra baten gainean jartzeko. Eta orain, bai, prest zaude, bakailao brandaz gozatzeko? On egin!o

Osagaiak: bakailaoa, esnegaina, pipermin gorria, berakatzatza, tipula, gelatina, olio



Croissanterie Briocherie

MONIF JAIA 1
48995 Getxo (Bizkaia)
CROISSANTERIE-getxo.blogspot.com 94 460 86 48



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA




KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaleak, Soinua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Azterketak amaitu dituzu eta zorionak! A zer lasaitua, ezta? Orain emaitzen zain, zer gertatuko ote? Beno, bitartean aprobetxatu denbora, badaezpada ere...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Urteko tristurak, une txarrak, estresa eta gauza okerrak kanpora, San Juan sutan erreko dituzu danak! Prestatu gurari-zerrenda ere bertan erretzeko, ziur danak betetzen direla!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Martiatuko jaietara joango zara lagunakaz eta primeran pasako duzue! Jende interesgarria ezagutu eta pila bat ligatuko duzue. Uda ezin hobeto hasiko da!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Hemen nahikoa curi ez eta Niagara aldera joan zara oporetan, urjauziak ikustera. Itortzeko gogoz zabilta ala? Lasai egon, egundoko uda bero eta eguzkitsua datorkigu-eta!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Exekoakaz eztabaidatu eta azkenean pikutara bidaliko dituzu! Baina ondo pentsatu gauzak, hobe duzu barkamena eskatu, gurasok ateko zarraila aldatu baino lehen...

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Aizu, eguzki, baduzu garaia zauden tokitik urteteko eta aurpegia emoteko! Kokoteraino gaude eguraldi eskas honegat, baratzak ere urez gainezka ditugu. Animatu eta urten kalera!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Udatiar, zorionak! Urtero legez, San Juan jaietan ospatuko duzu urtebetetzea, baina aurrean lagunak jai sorpresa prestatu dizute: zuk egin harrituarena, nik ez dizut ezer esan...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Inoiz baino gogotsuago zabilta aurretan San Juan suan pentsatzen. Zenbat jauzi egingo duzu haren gainetik? Badakit entrenatzen ibili zarena, baina kontuz gero ipurdia erre barik!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zu bai saiatua, parrandarako denean gogor ekiten diozu "beharrari"! Laster dagoz sanjuanak, sanpedroak, e.a. Hainbeste "behari" heldu ahalko diozu? Eta areago, horietatik onik atera?

META



(Irailak 17 urriak 16)
Oso ondo ari zara beharrez, gogotsu. Sei hilabete besterik ez doroazu lanpostu barrian, baina nagusiak pozarren daukazu. Segi horrela, laster mailaz igoko zaituzte-eta!

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Autoa tailerrezan daukazu, beste behin ere! Zer izan da oraingoan, enbragea, bateria, gurpila... Enegarrenez, eroan traste zahar hori autoak desegiteko tokira eta erosi Barik txartela!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Jatorra zara benetan, Negua, baina daborduko kokoteraino gauzkazu. Euskal musika talde batek abesti ezin ederragoa egin zuen negua joan dala esanez... Jaramon egingo ahal diozu behingoz!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekolizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Apaizari meza ematen laguntzen dion pertsona.
2. Apaiz, abade. Noka dago.
3. Baretua. Kontsonantea.
4. Niri, du. Ultzamako lekua eta kontzejua.
5. Alokairua, akura. Musika nota, eskalan bigarrena.
6. Ingelesek bostak alde-
ra edan ohi duten infusioa. Aginpiderik ezak sorrarazten duen egoera nahasia.
7. Sastraka, sasitza. Nafarroako alderdi eskuindarra eta espainola.
8. Uranioaren ikur kimikoa. Atunaren arrantza, atunketa.
9. Pisu handiko, zamatxu. Sabelkoikeria.
10. Buruarinak.

Goitik behera

1. Pikoak, aldapatsuak, malkarrak.
2. Jujea, jueza. Euskal atzizkia.
3. Hego Euskal Herrian, saski. Simaur, ongari.
4. Barazki hostotsua. Toka, gara.
5. Berrogeita hamar, zenbaki erromatarren arabera. Izena duena.
6. Muru-..., Zizurko kontzejua. Kontsonantea.
7. Gaunako biztanle. Gazte-erakunde kontserbadorea.
8. Bizkaiko udalerria, hego Urriben. Guztiz maitea eta begikoa den gauza.
9. Harrapa ezan! Tripako mina.
10. Gaixo ..., ondo ezik. Uribe Kosta, laburbilduta baina.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Non eta noiz egingo da Balkoitik Balkoira bertso-ekitaldia?

> Aurrekoaren erantzuna: Punta Begoña, Getxo
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Zaindu
Osteopatia-Fisioterapia

zaindu
Esku Terapio Zentrua
Bilbo

Doctor Landa 4, SOPELA.
Tel: 94 602 67 79

Non ospatzen dituzte San Juan jaiak?

- **Barrikan eta Getxon**
- **Leioan eta Erandion**
- **Leioan eta Barrikan**

> Aurrekoaren erantzuna: Jentilak
> Irabazlea: **Haize Solozabal Luces**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

berria

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



AGUSTIN SARRIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

“13 Calaveras”-ekoak Berangon, 1969-1970

Beti 13 batzen ziren, beti 13 lagun, 13 gizoneko lagunartea, denak Algortakoak. Eta jendeak eurei buruz “alprojak edo txoriburuak” zirela esan baino lehen, aurrea hartu eta lagun-taldea “13 calaveras” izendatzea erabaki zuten. Berangoko bakailao-txapelketan ateratako argazkia duzu goikoa; izan ere, lehiaketa gastronomiko ia guztietara aurkezten ei ziren, eta taldeko zenbait kide Azkorriko lehenengo Paella Eguneko antolatzaile izan ziren. Jatun, ardo-dastale eta festazale onak zirela zalantza gitxi, baina primerako sukaldariak izango ete ziren? Ziur baietz! o

Zutunik (ezker-eskuma): Jose Luis Martinez “Txeli” (GB), Agustin Sarria “Erik”, Josean Kamiruaga (GB), Txomin Guinea (GB), ?? “El viajante”, Tomas Elorriaga (GB), Luis Gobela (GB) eta Esteban Ortiz (GB).
Jesarrita: Manuel Iturbe (GB), Asen Bidaurrezaga, Iñaki Mardaras, Jose Mari Duñabeitia eta Pako Santamaria “El zapatero” (GB).

AITZIBER JUARISTI “TZIBI” > futbolaria

“Partida jokatu ostean, kola freskagarri bat edan behar dut”

Testua: **Nerea Guijarrubia**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Pertsona ona eta langilea.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Brave Hearten filmaren protagonista izango nintzateke, borrokalaria.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?

Amarekin 5 neba-arrebak arratsalde pasa joaten ginenean.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gura zenuke jardun?

Agian, albatari. Beti egoten naiz animaliekin; hartzen ditut, zaintzen ditut.

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Partidua jokatu ostean, kola freskagarri bat edan behar dut.

Zer barik ezin zara bizi?

Familia barik.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Ama bezalakoa naiz, azkenean dena barkatzen dut. Ez dakit ona ala txarra den, baina dena barkatzen dut, amaren herentzia.

Gorrito duzun topikoa

Emakumezkoen futbola ez dela, ez futbola ez femeninoa. Topiko horrek sutan jartzen nau.

Zein da zure ametsetako bat?

Nire ondokoak zoriontsu izan daitezela.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Txakurra. Dena emoten du ezer eskatu gabe.

Parrandarik politena?

Udan, Euskal Herriko edozein jaitan.

Oihukatu duzun azken aldia?

Azken partiduan San Mamesen; Bartzelonaren aurka galdu genuenean. ○

LABURREAN—Aitziber Juaristi Caballeroren (1976, Getxo), aitormenak ekarri ditugu oraingoan, askorentzat, *Tzibi*-renak. 2002an Leioako emakume-taldeak eta Athleticen bat egin, eta Athleticen emakumezkoen taldea osatu zen, ordutik, athleticen atzelaria da Juaristi. Urte hauetan hainbat dira jokatu dituen partidua baita lortutako sariak ere; besteak beste, azken 11 urteetan, athleticen neskek lau superliga irabazi dituzte. Iaz eta aurten, ostera, bigarren lotu dira lehenengo mailako ligan. Juaristik aitortu legez, gorrotu du, gaur egun ere, askoren ahotan darabilen topikoa: emakumezkoen futbola ez dela ez femeninoa ezta futbola ere. Haien lorpenei so eginez gero, erraz ikus daiteke askok egiten duten futbola baino hobe dela eurenarentzat.

Zornotzako Barnetegia, euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko duzun etxea.



Zornotzako Barnetegia, dituzun premiei erantzuteko aukera ematen dizun zentroa. Horrela, etxe honetan zeu, ikaslea, zara protagonista, dituzun helburuak lortzeko.

Urte hauetan guztietan ikasle asko etorri dira Zornotzako Barnetegira, euskalduntzeko asmoz. Horrela, hemendik pasatu direnak **10.000 ikasle baino gehiago** izan dira. Ikasle horietako batzuk Administrazioako programa berezien bitartez etorri dira (IRALE, Osakidetza, Justizia, IVAP, aldundietako programa berezien bitartez), beste zenbait enpresa pribatuaren euskara planei esker, eta beste asko beraien kontura.

Ikasleen atal honetan, aipamen berezia merezi dute atzerititik etorri direnek. Hauetariko batzuk mundu osoan Eusko Jaurlaritzak babesten dituen euskara irakurle goen ikasleak izan dira, eta horregatik, Etxepare Institutuak edo beste erakunde baten bekei esker izan ditugu geurean.

Ikasleak gurera etortzen dira **HABEk** homologatutako zentroa garelako eta **24 orduko inguru euskalduna** eskaintzen dugulako. Horrela, euskara egunerokotasunean txertatzen da eta irakaskuntza erabilerari lotua dago. ○

HEMEN ZEURE ZARA PROTAGONISTA



Zer nabarmenduko zenuke?

– Barnetegian, bertako giroari eta hezkuntza sistemari esker, minutu guztiak aprobetxatu nituen. Gomendatzen dizut!

Irenek (Getxo) magisteritza ikasi du, irakaslea da eta 23 urte ditu.

– Barnetegian eman nituen egunak oso emankorrak izan ziren eta etxean bezala egon nintzen.

Jon (Getxo) ikasten dabil eta 30 urte ditu.

www.zornotzakobarnetegia.com

Tf. 94 630 83 04



OLGETAN SOLAS

E!
Erandio
Eizateko Udala

ERANDIOKO JAIETAN

2013



ARGAZKIA: AMA-LUR

Familian...

* Familia bakoitzak talde bat osaluko du: gurasoetako bat, edo biak, eta seme-alabetako bat, edo gehiago



← Olgetan Solas 2013: non eta noiz

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

euskara@erandioko-udala.net - ☎ 944890128